

hiruka

180. zenbakia
2022ko otsaila

PENTSIO
PUBLIKO
DU INAK


GETXOKO PENTSIONISTEN ELKARTEA ETA ONEKA

«Borrokatu barik
ez dugu
ezer lortuko»



Telegram kanal berria

Uribe Kostako informazioa zure eskura!



hiruka

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Sendabelarrak, naturaren botikak
- 10 Herriz herriko informazioa
- 16 Zinemaz bizi
- 17 Euskarari, atara kontuk!
- 18 Hirudika
- 24 Lehen/orain eta Uribitakora
- 26 Berbetan: Oneka eta Getxoko Pentsionisten Elkarte
- 30 Plentziako Txikiteroen 50. urteurrena
- 31 Natalia Monge eta Arnasa ikuskizuna
- 33 Musikhariak: Arrotzak
- 34 Naiomi Matthews borroka-kirolaria
- 35 Maitane eta Nahia Arana Quintanilla, txirrindulariak
- 36 Iritziak eta horoskopoa
- 37 Usategi
- 38 Argazkilariaren txokoa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Faceguk
- 43 Zozketak

6



Tradiziozko jakitura berreskuratu guran

18



Costa Rica, Gonzalo Azumendi argazkilariaren bisoretik bidaian

26



Bego Zorrozueta eta Javi Basartegaz solasean, pentsioen inguruan

35



«Ilusioa sortzen dit ahizpa irabazten ikusteak»

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Uxune Iriondo, Endika Alabort, Galder Bilbao Txapi, Unai Angulo, Julen Nafarrate, Iñigo Esteban, Joanes Atxa, Gonzalo Azumendi, Asier Barruetaña, Nahikari Ayo, Nerea Garcia, Tartanga Berdea, Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundua.

Egoitzak: zaharra noiz arte berri?

UXUNE IRIONDO URBISTAZU Bilgune Feminista



Susmoetan eta iritzietan oinarrituko gara hau plazaratzeko. Ez dugu uste lar aditua eta argia izan behar denik, gura izanez gero, bete-betean asmatzen ari garela baieztatzeko. Hara, jaio eta hazi eta hezteko garaian bezala, adinean edo mendetasunean gora egiten dugun heinean, agerian geratzen dira gure zaugarritasuna eta elkarren beharra.

Ea ba, itxi begiak eta, asko hausnartu gabe, zein da datorritzun lehen irudia, lehen hitza zaintza horiek noren bizkar, zergatik eta zeren truke egiten diren pentsatzeko esaten badizugu?

«Kulturaz», «tradizioz», betiko alardearekin bezala, sinetsarazten zaigu, kontzienteki ala inkontzienteki, emakumeon zeregina dela, eta horrela hazten gara, hezten gaituzte. Horregatik egoitzen mundu horretan ere zaharra berri emakumeentzat, erabiltzaile, senide zein langile.

Umeen zaintzarekin bezala, ziurrenik eta zoritxarrez, albiste izango dira, kameran xede, etxeokoa zaintzen dituzten gizonak, horrelakoetan, sistemak oraindik salbuespen diren gizonak goraiatzeko eta bistarazten baititu bat ere lotsarik gabe.

Mesedez, gizon! Kendu fokutik! Aldarrikatu zaintza-zerbitzu unibertsal eta publikoa gurekin.

Enplegu egoeraren argi-ilunak

ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN Ekonomialaria



Langilez osatutako eskualdean bizi gara, agian, buzo-urdineko-gizon-txuri estereotipoa ez da nagusi, baina Uribe Kostan errenta pertsonalen iturri nagusia lana da gehienentzat. Horregatik, lan arloko gorabeheretan fokua jartzea garrantzia izan beharko luke gure lurralde txiki honetan.

Ez da erraza gure eskualdeko lan egoerari buruzko estatistika zehatzak aurkitzea. Hala ere, interesa duen zeozer aurki daiteke. Mikroenpresek sortutako enpleguaren %50-70 xurgatzen dute, zerbitzuetan oinarritutako ekonomia espezializazioa agerian uzten du, zeinean industriak pisu gutxi duen, herri batzuetan salbu (Leioa-Erandio, adibidez). Horrek lan baldintzen prekarizazio prozesuak hobeto azaltzen du.

2005-2020 epean, lan merkatuko datuak okerrera egin dute eskualdean. Gero eta kontratu gehiago sinatzen dira pertsona bakoitzeko, kontratu mugagabeen pisua murriztu da eta, gazteen kasuan, nabaria da jaitsiera hori. Errenta pertsonalen azterketa egiten badugu, 2019 urtean ere udalerrri askotan ez zen krisi aurretiko egoera berreskuratu, hamarkada galdu bat emanez. Pandemia egoerak ez du hori hobetu.

Uribe Kosta «Kosta Rika» moduan irudikatzen digute, baina lan eta errenta arloetan hori ez da irudi erreala.

Puntua eta kontrapuntua **Neguko sendabelarrak**

Gaitz sendaezina

*Aspaldiko druidek
bazuten artea,
gorputzari emonez
neguan bakea.
Gaur aldiz nonnahitik
dator atakea,
noraino ote doa
Unai zure ustea?
Osasuna sendata
noizko gizartea?*

**GALDER
BILBAO
MARTINEZ TXAPI**
Udondo

*Gizartearen gaitza
sendaezina da...
COVID-aren kontua
da horren islada.
Baina gure gorputza
zaintzeko bagara
menda, eukaliptua
bi koilarakada
ikasi daigun zaintzen
betiko erara.*

**UNAI
ANGULO
ALDEKOA**
Algorta



Ugo Mayor Biokimikaria eta ikertzailea

«Gizarteari zor diogu ebidentzia zientifikoak zabaltzea»

Urdulizen bizi den ikertzaile donostiarrak oihartzuna izan du sarean eta hedabideetan azken hilabeteotan, osasun-krisiagaz lotutako neurriak direla eta.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Noiz amaituko da pandemia? Noiz utziko ditugu atzean musukoak, txertoak, COVID-19a detektatzeko testak eta ziurtagiriak? Mota horretako galderari erantzun behar izan dio behin eta berriz Ugo Mayor biokimikariak azken hilabeteotan: «Askotan egiten dizkidaten galderak dira, bai. Nire ustez, garrantzitsua da zintzoa izatea. Behin baino gehiagotan esan digute honakoa –seigarrena– azken olatua izango zela, eta hori ez da horrela».

Ikerbasqueko eta EHuko beharraz gain, askotariko hedabideetan ere elkarrizketa ugari egin ditu Mayorrek, pandemiaren eraginez: «Zientzia beti egon da alboratuta prentsan, baina, orain, osasun-krisiagaz, egoera aldatu

da». Batek daki, pandemia amaitzerakoan, agian berriro ere zientzia ahaztuko dugu... «Seguruenik, nahiz eta zientzia gauza guztien atzean egon: elikadura, osasuna, gerraioa...».

Hedabideetan ez ezik, Twitterren ere proiektzio handia lortu du Mayorrek: «Lehen, ez nintzen 100 jarraitzaileetara heltzen, orain, ia 5.000 dira». Bere hari batzuek oihartzun handia lortu dute; batzuetan, erakundeen erabaki batzuk zalantzan jartzen: «Jendeak uste du zientzialariak erosita gaudela iritzi bat edo beste emateko, baina gure lana ebidentzia zientifikoak zabaltzea da, gizarteari zor diogu hori».

Ezin amaitu elkarrizketa guk ere galdera egin barik: Baina Ugo, hau noiz amaituko da? «Ez dago jakiterik, baina hau oraindik ez da amaitu». Tira, ez genuen erantzun hori espero ba... «Bai, horretan zientzialariak nahiko desatseginak gara. Gauza bat da ditugun adierazleak eta beste bat entzun nahi duguna». Esperantzarako tarterik bai, behintzat? «Bai noski, iaz baino hobeto gaude, ez dezagun esperantza galdu». ◀

Sendabelarrak, naturak eskaintzen dizkigun botikak





Gizakia gizaki denetik, inguruan dagoenaz baliatu izan da. Besteak beste, landareak erabili izan ditu, elikatzeko hasieran, eta gaitzak sendatzeko gerora. Esperientzian oinarrituta lortutako jakinduria hori belaunaldiz belaunaldi transmititu da, garai modernootan apur bat baztertuta gelditu den arte. Halere, gutxika, jakituria tradizionala berreskuratzekeo grina piztu da.

TESTUAK ETA ARGAZKIAK: **IKER RINCON MORENO** ►

A

skotariko landareak topa ditzakegu gure inguruan: batzuk handiak dira, besteak txikiak; kolore askotarikoak horkoak, monokromoak hemengoak; batzuk nonahi hazten dira, beste horrenbestek leku aproposak behar dituzte garatzeko, eta kostata aurki daitezke, non begiratu ez dakitenentzat, behintzat. Euskal Herri osoko bideak, haranak, parkeak, mendiak, herriak eta hiriak koloreztatzen dituzte landareek eta, antzinatik, gure

bizitzako parte izan dira. Izan ere, gure lurrak oso emankorrek dira eta, gaur egun, bertokoak zein kanpokoak ikus daitezke nonahi. Etxetik atera eta adi-adi begiratzea besterik ez da behar.

Mendez mendeko, gaixotasunak edo bestelako ondoreen tratamendu gisa erabili izan dira landare horietako asko hainbat kulturatan, baita gurean ere. Gure arbasoek oso arin ikasi zuten bereizten landare bat edo beste, bakoitzaren erabilgarritasunaren arabera: gai ziren jakiteko zeintzuk diren jangarriak, sendagarriak edo toxikoak. Horretarako, esperientzian eta behaketan oinarrituta, urte luzez, lortutako jakinduria belaunaldiz belaunaldi transmititu da, hasiera batean, ahoz, eta gero, idatziz, gaur egunera arte. Horri esker, landareak oso erabilgarriak izan dira gurean; egunerokoan baliatzen ditugu, sukaldeko errezeta bat egiteko, zuzenean erabilia zein kondimentu gisa, edota ondorez gaudenean osasuna hobetzeko, jarabe, infusio zein beste hamaika modutan hartuta.

Medikuntza modernoa ere sendabelarren printzipio aktiboetan oinarritu da botika askotako formulak osatzeko eta, horren ondorioz, ohikoa da gaur egun edozein ondorez sendatzeko etxe ondoko farmaziara joatea pilula bat edo beste hartzeko. Hartara, pixkanaka-pixkanaka, mendeko belaunaldiz belaunaldi pasatako jakituriaren lekukoa bazter batean gelditu da txoko askotan; hala ere, azken urteotan, gure arbasoen jakituria tradizionala berreskuratzekeo grina piztu da, eta interes hori

duten gizon-emakumeak areagotzen ari dira han eta hemen. Horren adibide da joan den urtarrilaren 30ean Getxoko Ingurumen Aretoan antolatutako sendabelarren tailerra.

Horretan, Garbiñe Belloso nekazari ekologikoak neguko sendabelarren nondik norakoak azaldu zituen, baita hotzeriaren aurkako eta eztarria zaintzeko jarabe bat egiteko tailerra eskaini ere –orriotan ikus dezakezu prestakin hori egiteko nondik norakoak–. Gainera, garaiotan topa ditzakegun sendabelarrak zer-nolakoak diren aipatu eta Ingurumen Eskolaren inguruetan ibilbidetxo bat egin zuen bertaratutako kideakaz hamaika adibide topatzeko: asuna, zain-belarra, andura, pinua, hilerri-lilia, huntza, txikori belarra eta negakina, besteak beste. «Horiek denak oso garbigarriak dira, garaiotarako oso aproposak», dio Belloso, «normalean, naturak behar dugun guztia eskaintzen digu; berbarako, neguan, garbigarriak ditugu, gure organismoa garbitzeko aproposak. Udan, aldiz, ia-ia denak topa ditzakegu». Ildo horretan, gogoratu du urte osoan zehar aurki daitezkeela sendabelarrak inguruotan, baina, batu gura dugunaren arabera, urtaro edo garai batera itxaron beharko dugu –ikusi beheko taula–.

OSATZEKO BELARRAK. Belloso nabarmendu duenez, sendabelarrak gauza askotarako baliagarriak izan daitezke. «Kanpo-erabileran, antiinflamatorioak, orbaintzaileak eta birsortzaileak izan daitezke. Batzuk, eltxoen pikadurak arintzeko baliagarriak dira, baita horiek uxatzeko ere. Barne-erabileran, aldiz, mota guztietako gaitzak sendatzeko topa ditzakegu: landare batzuek gibela, besikula edota giltzurrunaren jarduna hobetzeko lagungarriak dira; beste batzuk, aldiz, digestiboak edo lasaigarriak. Hamaika erabilera dituzte».

Gurean, besteak beste, asko erabili izan da zain-belarra, tradizioz, hainbat erritutan erabili izan delako hori hanturak arintzeko. Bertokoa ez den arren, iodo-belarra ere edonon topa daiteke gaur egun, «baserrietan batez ere, abereen zauriak orbaintzeko asko erabili izan delako», gogoratu du adituak. Horiez gainera, andura nabarmendu du Belloso, pomada gisa, erre-durentzako asko erabili dela gogoratuta; sinusitisari aurre egiteko berbena-belarra ere asko erabili izan da hemen, eta urtez urte asunagaz kolpeka ikus daiteke oraindino inor inguruotan zirkulazioa aktibatzeke, besteak beste. «Belar bakoitzak erabiler bat edo gehiago izan dezake; zertarako baliatu, nola jaso eta zelan prestatu jakitea besterik ez da behar», nabarmendu du nekazariak. Halere, gogoratu du sendabelar guztiak ez direla denontzako aproposak: «Berbarako, eukaliptoak eta pinuak kontraindikazioak dituzte, eta ez da gomendagarria bost urtetik beherako umeentzat, ezta pertsona nagusientzat ere». ◀



Ezkaia: **Gurean** kultibatuta topa daiteke soilik; naturan, **Burgos** aldetik behera.



Zain-belarra: **Naturan** oso erraz topa daitekeen belarra da hau; edonon haz daiteke.

Noiz batu behar dira sendabelarrak?

Hostoak

Barazki moduan erabiltzeko batzen ditugunean, hala nola zain-belarra (*Chelidonium majus*) eta asuna (*Urtica dioica*), hosto samurrak bilatuko ditugu, betiere landarea loratu aurretik. Aldiz, infusioak eta halakoak egiteko, gehiago itxaron daiteke. Zuhaitzetako hostoen kasuan, horiek gehienezko tamaina dutenean batuko ditugu.

Lore-sortak eta petaloak

Loreak batzeko, horiek zabaltzen hasten direnean batu beharko ditugu. Petaloen kasuan, lore-sortak ez bezala, lorea guztiz zabaldu arte itxaron beharko dugu behar ditugun petaloak batzeko.

Sustraiak

Udaberriaren hasieran edo udagoienaren amaieran batu beharko ditugu sustraiak. Hala ere, kontuz ibili landare asko ez badago; landare batzuk utzi behar ditugu beti horiek heda daitezen.

Jarabea, pausoz pauso



1 Jaso

Eztarria zaintzeko jarabe hau egiteko, ezkaia eta zain-belarrak batu beharko ditugu. Lehenengoa, kultibokoa izango da; bigarrena, edozein zelaian topa dezakegu.



2 Txikitu

Behin batuta, belarrok zatitu edo txikitu beharko dugu; hobe da eskuz egitea. Ondoren, kazolan batuko ditugu zatitxo guztiak, hurrengo pausoari ekiteko.



3 Egosi

Aurretik irakiten jarritako uretara bota sendabelar-zatiak eta bi minutuz egosiko ditugu. Litro ur bakoitzeko 100 gramo sendabelar erabiliko ditugu. Ondoren, 15 minutuz gorde.



4 Nahastu

Infusioa eginda dugula, gura izanez gero, eztiagaz nahastu dezakegu lortutakoa, kantitate berdinean. Hau da, litro infusioari beste litro ezti nahastuko diogu.




5 Edan

Koilarakada bat hartu ahal izango dugu egunero, gutxika, eztarrian eragina izan dezan. Gargarak ere egin daitezke. Eztiari esker, hozkailuan gorde ahal izango dugu, hilabetez.

Sendabelar batzuk

Ezkaia. *Thymus vulgaris*



Askotariko erabilerak eman ahal zaizkio. Sukaldaritzan ongailua izateaz gain, sendabelar gisa, antiseptikoa da ultzerak eta zauriak garbitzeko eta, infusioan, bronkitisa, laringitisa eta beherakoaren kontra erabili ohi da. Hanturaren aurkako propietateak ere baditu.

Zain-belarra. *Plantago major*




Askotarako balio duen arren, gehienbat, larruazalaren desinflamatzailer gisa erabiltzen da; horretarako, hostoak irakin eta kaltetutako aldean ipintzen da, enplastu gisa. Jarabeetan ere erabiltzen da katarroak, bronkitisak eta asmari aurre egiteko, besteak beste.

Andura. *Sambucus ebulus*



Propietate sendagarri ugari ditu; hanturaren aurkakoa, laxantea, espetoratzailer, izerdiarazlea, purgatzailer eta diuretikoa. Hala, digestio-arazoak eta urdaileko zein gibeletako minak tratatzeko erabiltzen da, besteak beste.

Biriki-belarra. *Pulmonaria officinalis*



Infusio moduan erabiltzen da eztula, kukutxeztula, bronkitisa eta eztarriko eta afoniako minak tratatzeko. Gainera, izerdiarazlea, antiinflamatorioa eta diuretikoa da. Beherakoetan, hemorroideetan eta gernu-maskuriaren afekzioetan ere erabili ohi da.

Echinacea. *Echinacea purpurea*



Sustraiak erabiltzen dira normalean, baina erabilgarriak dira ere hostoak, zurtoinak eta loreak. Gaixotasun infekziosoen aurkako defentsak areagotzeko estimulatzaile immunitarioa da eta, besteak beste, katarro eta gripeetarako erabiltzen da.

Fruituak eta haziak

Normalean, fruituak eta haziak helduta daudenean batu behar ditugu. Halere, badaude salbuespenak, hala nola intxaur berdeak batzen ditugunean.

Izerdia

Udaberriaren hasieran batu beharko dugu.

Azala

Bigarren geruza erabiltzen da normalean; hori dela eta, saiatuko gara horiek ez erabiltzen azal gazteak ez direnean, hala nola intsusa eta zumeen kasuan. Kasuotan, horiek ilbeheran jasoko ditugu, negu amaieran edo udaberri hasieran.

Getxo Udalbatza

Langileen lantaldea handitu eta araubidea aldatzea onartu dute

Udaleko talde guztien aldeko botoak, EH Bildurena izan ezik, aurka bozkatu egin duelako, ontzat eman du Udalbatzak behin-behineko langileen lantaldea handitzea eta arduraldi eskusiboa edo partzialeko araubidea aldatzea. Hala, PPK beste aholkulari bat izateko aukera izango du eta EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek, aldiz, bakoitzak beste liberatu erdi. EH Bilduk, bere aldetik, aldaketa hori «alderdikeria eta azpijokoa» dela salatu du.

Oposizioko talde nagusia den PPK eskubidez dagokion udalkidearen liberazioa galdu du. Izan ere, popularren taldeko bozeramaile den Eduardo Andradek arduraldi eskusiboari uko egin dio Bizkaiko Foru Aldundiaren bozeramaile izateko eta, horren ordez, bere udal-taldeak beste aholkulari bat izateko aukera eskuratu du; oposizioko beste bi taldeek, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek alegia, liberatu erdina irabazi dute, eta gobernuko bi alderdiak, EAJ eta PSE-EE, zeuden moduan geratuko dira. Orain arte, oposizioko udalkideen liberazioak honela zeuden banatuta: PP taldeak 3, EH Bildu taldeak 1, eta Elkarrekin Podemos taldeak 0,5; bada, hartutako erabakiaren arabera honela geratuko dira: 2, 1,5 eta 1, hurrenez hurren, Udalak zabaldu duenez. ◀

Getxo Gazteak

Gazteen arazoei aurre egiteko antolakuntza aldarrikatu dute

Gaur egun gazteek bizi duten egoera «itogarriaren» adierazlerik nabarierik aisialdirako eta euren jardunak burutzeko duten eremu eta eskaintza falta dela nabarmendu zuen urtarilaren 29an, prentsurrekoan, Algortako gazte talde batek. Udalari euren kezkak azaldu zizkioten, eta gobernuburuek eurakaz batzeko nahia plazaratu zieten. Halere, ate hori «zabalik» utziko duten arren, gazteek euren bidea egiten segituko dutela adierazi eta otsailaren 11n mobilizazio bat egingo dutela iragarri dute; arrastiko 18:00etan jarri dute hitzordua, Telletxe plazan. «Gure arazoei irtenbidea emateko gazte antolakuntza ezinbestekoa delako», azaldu dute. ◀

Getxo Kultur Etxea eta Artekale, elkarlanean

Publikoen garapena eta kaleko arteak sustatu gura dituzte

Muxikebarri Antzokiak Arteen Sukaldea 2022 programa hartuko du maiatzean. Gainera, proiektu artistikoetan herritarren parte hartzea sustatu gura dute.



Deialdiaren oinarriak eta izen-ematea otsailaren 27ra arte egongo dira zabalik.

Getxoko Kultur Etxeak eta Artekalek, Euskal Herriko Kaleko Arteen Elkarrekin, hitzarmena sinatu dute publiko kulturalaren eta kaleko arteen garapena sustatzeko. Horri esker, 2022ko Publikoentzako Sorkuntza Jardunaldiak direla eta, Muxikebarri Antzokiak Arteen Sukaldea 2022 programa hartuko du maiatzean, eta bertan zenbait hitzaldi eskainiko dituzte publikoaren garapenaren inguruan. Hala ere, horren barruan, kaleko arteei lotutako ekintzak eta proiektu artistikoen deialdiak ere egingo dituzte, eta azken horren emaitzak kaleko programazioaren barruan ikusi ahal izango dira.

Hitzarmenean jasotako ekintzak garatzeko, Kultur Etxeak 12.000 euro bideratuko ditu, eta maiatzaren bigarren astean Muxikebarri Antzokian izango diren jardunaldiak egiteko beharrezkoak diren ekoizpen-gastuen zati bat bere gain

hartuko du. Bertan, kultur sektoreko izen ospetsuak izango dira hizlari, eta publikoaren garapenaren inguruko hainbat alderdi aztertuko dituzte.

Jardunaldiak batera, maiatzaren 13an, kaleko arteen programa egingo dute Muxikebarri inguruan, publikoari hainbat sormen diziplina gerturatzeko. Programa horretan, gainera, Artekalek abiarazitako eta Kultur Etxeak finantzatutako deialdiaren barruan hautatutako bi proiektuak erakutsiko dituzte. Guztira, 5.000 euro emango ditu Kultur Etxeak 16 eta 25 urte bitarteko udalerriko auzokideak lankidetzan bi proiektu garatzeko. Proposamen horien bidez, Kultur Etxeak eta Artekalek proiektu artistikoetan herritarren parte hartzea sustatu eta bultzatu gura dute, bai eta gazteen artean arteekiko eta kulturarekiko konpromiso soziala sortu eta kontsumo kulturalako eredu berrietan sakondu ere. ◀

Leioa 2023ko aurrekontu parte hartzaileak

Leioako Udalak 2023ko Aurrekontu Irekien lehen faseari ekin dio

Otsailaren 27ra arte, leioaztarrek udalerria hobetzeko ideiak aurkeztu ahal izango dizkiote Udalari. Umeek ere beraien aurrekontu-prozesu propioa izango dute.

Laugarren urtez jarraian, Leioako Udalak herritarrei galdetuko die zertan inbertitu 800.000 euroko aurrekontu-partida. Daborduko hasi dute lehen fasea, eta 2023ko udal-aurrekontuan proposamenak sartzeko aukera egongo da otsailaren 27ra arte. Bertan, herritarrek udalerrian egin beharreko inbertsioak edo jarduerak proposatu eta aukeratu ahal izango dituzte. Proposamen horiek guztien onurarako izan behar du direla zehaztu du Iban Rodriguez Leioako alkateak; izan ere, prozesu horretarako, interes orokorra kontutan hartuko dutela zehaztu du. Horretaz gain, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak ere izan behar dira, eta Leioako Udalaren eskumenen esparruan egon behar dute.

Lehen fase honetan, udalerriko hobekuntza-proposamenak batuko dituzte, ondoren, teknikariek bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa azter dezaten. Hortik, bost eta hamar proiektuko zerrenda aterako dute arduradunek.

Bigarren fasean, aukeratutako proiektuak bozkatuko dituzte, herritarrek hobeto baloratzen dituztenak aukera ditzaten. Aurreko bi urtetan egin duten bezala, Herrigunetik datozen proiektuak ere baloratuko dituzte bigarren fase horretan. Herrigune Leioa ikaskuntza, parte-hartze eta gaikuntzako prozesu kolektiboak bultzatzen dituen proiektua da, herritarren eta erakundearen arteko lankidetzaz errazteko tresna, hain zuzen ere.

Udalerrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritar guztiek parte har dezakete prozesuan. Horretarako, Udalaren zuzeneko arreta-zerbitzua, udalerrian jarriko dituzten informazio-karpak, postontziak eta Leioa Zabalik garden-tasun ataria erabili ahal izango dute.

Horretaz gain, prozesuak umeen ikuspegi berezia ere jaso dezaten, aurtan, lehen aldiz, 200.000 euroko partida bat eman dio Udalak Leioako Umeen Kontseiluari, umeen aurrekontuen prozesu propioa martxan jar dezaten. ◀

Leioa Garraio jasagarria

Autobus elektriko batek lotuko ditu Leioa eta EHuko campusa

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta Leioako Udalak EHuko Leioako campusa eta metro-geltokia lotuko dituen egitasmoa aurkeztu dute. Zehaztu dutenez, unibertsitatea eta udalerria elkartzeko autobus elektrikoko sistema berria abiaraziko dute.

Linea berri horren proiektuaren nondik norakoak zehazteko lehen urratsa 2022ko lehen hiruhilekoan egingo dituztela iragarri dute Azpiegitura eta Garraioetako sailburuorde Pedro Marcok eta udalerriko alkate Iban Rodriguezek. Horretarako, Euskal Trenbide Sareak (ETS) udalerriko autobus linea publikoaren diseinua aztertzekeko lizitazio egingo du. ◀

Leioa Azaroan bukatuko dute

Avanzada egokitze lanen hirugarren eta azken fasea hasi dute

Daborduko hasi dira Avanzadako trafikoa berrantolatzeke lanen azken faseagaz. Azarora bitartean, unibertsitateko sarreraren eta tunelen arteko tartean arituko dira lanean. Imanol Pradales Bizkaiko Azpiegitura eta Lurralde Garapenekeo diputatuak azaldu duenez, jarduketaren helburua da BI-637 errepidean trafikoa segurtasuna eta arintasuna hobetzea eta loturak erraztea. Gaineratu duenez, lan horregaz, itsasadarren azpiko tunela egon arte, denbora irabazten ari dira. ◀



KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

BETIKO
IKASTOLA

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84. (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
- Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.


ikastolenekartea

Sopela Jaialdi antierpresiboa**Jazarpen politiko eta poliziala salatu du Sopelako Ernaik**

Ernaiko Sopelako hainbat kidek jasandako «eraso eta etengabeko jazarpena» salatzeke prentsaurrekoa egin zuten joan den otsailaren 5ean. Pairatutako errepresioaren nondik norakoak azaltzeaz gainera, horri «elkartasunez» erantzuteko eta isunei aurre egiteko, otsailaren 26an jaialdi antierpresiboa egingo dutela iragarri zuten.

Prentsaurrekoan, gazteek deitoratu zuten herrian euren jardun politikoa garatzeko propaganda jarri gura izateagatik 3.000 euroko isunak jaso dituztela 2020ko abendutik hona, «baita atxiloteta bat, horren epaiketa, udaltzainen kolpeen ondorioz ospitalizatutako gazte bat eta etengabeko jarraipenak».

Gazte ekintzaileek salatu zuten EAjk «bere indar polizialak» baliatzen dituela kaleak astintzen dituen gazteriaren kontra oldartzeko. Ildo horretan, gogoratu zuten joan den eguean udaltzain bik Getxoko epaitegietan deklaratu behar izan zutela, «atxilotutako gaztearen eskubide urraketengatik».

Isunak, kolpeak eta jarraipenak gazteen militantzia politikoa «itotzeko maniobra zikinak» direla gogor salatu zuten gazteek: «Gu beldurtu eta desaktibatzea dute helburu». Hala ere, argi utzi zuten ez direla geldituko, «aldarrikapenez kaleak astintzen jarraituko dugu. Eraldaketa soziala eta askapen nazionala helburu, Sopelako gazteok sasi guztien gainetik antolakuntzan eta borrokan jarraituko dugu». Gainera, urteotan pairatutako errepresioari elkartasunez erantzuteko deia egin zuten; besteak beste, iragarri zuten isunei aurre egiteko jaialdi antierpresiboa egingo dutela otsailaren 26an. ◀

Erandio Berdegunea arriskuan**Astrabuduko hezegunea babes dezatela eskatu dute hainbat elkarte**

Erandioko auzo-elkarteek eta ekologistek erakunde publikoen inplikazioa eskatu dute berdegunearen berreskurapenerako eta babeserako.

Erandioko auzo-elkarteek eta talde ekologistek Astrabuduko ibarreko hezegunea berreskuratzeko eta babesteko beharra adierazi dute; izan ere, eremu natural horrek «premiatzeko kudeaketa-plan bat» behar duela adierazi dute, «hain baliotsua den, baina abandonatuta dagoen eremu hori babesteko». Erandioko Auzokideok taldeko kideek azpimarratu dutenez, «hezegunea estrategikoa da erandioztarren bizi-kalitaterako, gune berde bat suposatzen duelako hainbeste porlanen artean».

Zentzu horretan, Udalak hezegunearen balioa azpimarratzeko informazio-panel bat jarri du, horren garrantzia azaldu eta bertan bizi diren animalia eta landareen berri emateko. Izan ere, Astrabudukoa bezalako berdeguneek berebiziko garrantzia dute, ur geza garbitu, biodibertsitatea areagotu eta uholdeen aurkako mekanismo natural moduan funtzionatzen dutelako.

Auzokoa Herrikoi eta Herri Bi-deak Kate Barik elkarteek ontzat jo

dute informazio-panela bertan jar-tzea: «Astrabuduko ibarreko hezegunea berreskuratzeko lehen urratsa da». Hala ere, erakunde publikoen aldetik interes falta dagoela deitoratu dute, eta gunea etengabe hondatu dela salatu ere, erakunde batek ere ez baitu hori kudeatzeko ardura hartu eta, azkenaldian, baratzte eta etxola ilegal asko ugaritu direlako inguruan.

HEZEGUNEAREN BALIOA. Horretaz gain, URAk, Uraren Euskal Agentziak, egindako azken ikerketan jakinarazi duenez, arriskuan edo babestuak dauden hainbat animalia-zen bizilekua ere da hezegunea; gainera, beste hegazti askok migrazioetan atsedenaldirako erabiltzen dute: lezkari arrunta, txilinporta txikia, apoarmatu legenarduna edo arrain arantzaduna, besteak beste. Horieta-z gain, hainbat aingira, lertxun edo ahate bizi dira hezegunean, eta lezkadien garrantzia ere nabarmendu dute, txoriei aterpea eta habia egiteko lekua ematen baitiete. ◀



**Biharko mundua
gaur eta hemen**

 **ikastolenelkartea**

SOPELA | 946 76 02 66 | info@anderdeuna.eus

 **ANDER
DEVNÀ
iKASTOLA**

www.anderdeunaikastola.eus

Berango Hirigintza

Icaza jauregiaren jabetza baieztatu du Berangoko Udalak

Inmogroup eta Udalaren artean higiezinak trukatzeko hitzarmen-prozesuaren kontra Berango Lurraren Defentsan taldeak jarritako helegitea atzera bota du Udalbatzak.



Moreaga parkean dago Icaza jauregia. HO DEI TORRES

Duela urte bi Inmogroup Grupo Promociones Inmobiliarias S.A.-ren eta Berangoko Udalaren artean higiezinak trukatzeko hitzarmen-prozesuaren kontra Berango Lurraren Defentsan taldeak jarritako helegitea atzera bota zuen Udalbatzak joan den urtarrilaren 25ean. EAJ eta PP udal-taldeek aurka bozkatu zuten, EH Bildu eta PSE-EE alde, eta Elkarrekin Podemos abstenitu egin zen. Ekintzaileek erabaki hori gogor kritikatu dute, Udalak higiezin ho-

rren 2,1 milioi euroko tasazioa onartu zuelako «egiaztapenik egin gabe eta bigarren iritzirik bilatu gabe».

2020ko udan, Inmogroup Grupo Promociones Inmobiliarias S.A.-k eta Berangoko Udalak higiezinak trukatzeko hitzarmena sinatu zuten. Horren ondorioz, permuta baten bidez, Otxabene sektorean lortu zuen partzela baten truke –enpresak babes ofizialeko 68 etxebizitza eraikiko ditu bertan–, urteetan hutsik egon diren Icaza jauregia eta ondoko lokala eskuratu zituen Udalak. ◀

Berango Ekitaldi mordo

Aktibo bizitzeko hamaika aukera antolatu dituzte

Udalerriko auzokideentzako ekintza mordo antolatu ditu Udalak, Berango Gazte Lab eta Gazteria Arloagaz elkarlanean, urrira bitartean. Lehenengo ekimena muskulu-kateen inguruko ikastaroa izango da, otsailaren 12an, Berango Gazte Laben lokalean, 10:30etik 12:30era. Horrez gainera, bestelako ekintzak egingo dituzte, hala nola estresa kontrolatzeko tekniken inguruko saioa, triatloi bat prestatzeko, elikadura osasungarrian murgiltzeko ikastaroa, jarduera fisikoan trebatzeko, urpekari-tzako bataioa, eta, azkenik, erortzen ikasteko tailerra. Horietarako, aldezturik izena eman beharko da, derrigor. ◀

Erandio-Lemoiz Industria

Eusko Jaurlaritzak industria-lurzoruak berreskuratuko ditu

Eusko Jaurlaritzak deitoratu duenez, gaur egun, EAEK «lurzoru gutxi» du bere jardura ekonomiko nagusia den industria bultzatzeko. Hori dela eta, apustu egin du erabiltzen ez diren eta berrorenatzeko eta deskontaminatzeko premia duten 2,3 milioi metro koadroko industria-lurzoru berreskuratuko 32 udalerritan, tartean, Erandion (Playa Barri eta Sakoni eremuak) eta Lemoizen (Basordas, zentral nuklearraren instalazio zaharra). Azken horretan, akuikultura-parkea sortu gura dute. ◀



AINGARA

BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

☎ 944 038 953

🌐 www.bordadosaingara.com

📍 Aurrezki Kutxa, 18 48930 Erromo · GETXO



Ebaki bonu hau eta %10eko deskontua izango duzu gure produktuetan*

*bordatuak eskaintzatik kanpo
*bonua ebaki eta dendan aurkeztu

Uribe Kosta BiziPuntuak**Bizikletak konpontzeko sei puntu berri ditu eskualdeak**

Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Sailak sei BiziPuntu berri jarri ditu Uribe Kosta. Totem itxurako gune horietan bizikleten mantentze- eta konponketan txikiak egin ahalko dituzte erabiltzaileak. Hauek dira zehazki eskualdeko BiziPuntu berrien kokalekuak: Getxo, Errekagane kalean, kiroldegia sarreran; Sopela, Loroño kalean, hondartzara doan zubiaren azpian; Gorliz, Andra Mari kalean; Erandio, BI-711 itsasadarreko errepidean, Jose Luis Goioaga etorbideko 31 zenbakian; Urduliz, Aita Gotzon kalean, frontoiaren parean; eta Berango, Sabino Arana kalean, Eroski aurrean. «Funtsezko baliabidea da Bizkaian bultzatu gura dugun mugikortasun iraunkorreko eredua sustatzeko, bizikleta eta beste garraiobide jasangarri batzuk erdigunean kokatzen dituelako», azaldu du Miguel Ángel Gómez Viar Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko diputatuak.

BiziPuntu berriok Aldundiak orain arte lurralde osoan jarri dituenen ezaugarri berdinak dituzte: pneumatiko-estalkiak muntatu eta desmuntatzeko bihurkinak, giltza ingelesak, giltza finkoak, allen giltzak eta lanabesak ipini dituzte. Guneak gurpilak puzteko mahuka eta balbula bidezko konektoreak ere hornitu dituzte, puzteko eskuzko sistema batez ere airearen presioa kontrolatzeko manometroagaz. Gainera, ura dosifikatzen duen mahuka baten bidez garbitzeko aukera ere jarri dute. Lan horiek guztiak erosotasunez egin ahal izateko, bizikleta eusteko besoak dituen zutoinak ere jarri dituzte. Funtzionamendua ezagutzeko, QR kode bana dute guneok. ◀

Gorliz Kiroldegia berritzeko lanak**Udalak 1,2 milioi euro inbertituko ditu instalazioak egokitzeko**

Besteak beste, futbol zelaia eta sarbidea berrituko dituzte, pabiloi berria martxan jarriko dute, eta dena kudeatzeko lizitazio berria prestatzen ari dira.



Futbol-zelaiaren zorua aldatuko dute, besteak beste.

Gorlizko kiroldegia berritzeko lanak hastear daude, pandemiak egitasmoa bi urtez atzeratu ondoren. Laster sarbideko eraikinean lanak hasiko dituzte, baina, horren aurretik, S.D. Gorliz futbol taldeak kudeatzen zuen taberna ixtea izan da lehen pausoa. Jose Luis Arrola Gorlizko Udaleko Kirol zinegotziak azaldu duenez, bertan, kiroldegiko sarrera egingo dute, besteak beste. Baina ez hori bakarrik, Gorlizko Udalak hainbat berrikuntza egin

gura ditu kirol-instalazioen eskaintza hobetu eta dibertsifikatzeko helburuagaz. Horretarako, 1,2 milioi euro inguruko inbertsioa egingo du aurten, kiroldegiko elementuak faseka berritzen joateko.

Taberna zegoen tokian sarrera egiteaz gain, taldeentzako kirol-materiala gordetzeko tokia handituko dute. Bestalde, zelaietako zoruak aldatu, atletismo-pista zaharberritu eta *parkour* gune bat eraikiko dute. Horregaz guztiagaz, gaur egungo eskaintza handitzea espero dute. ◀



GetxoGasol



Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!



ARANTZA ETXEBARRIA
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Urduliz Lanuztea ospitalean

Txanda-osagarriak guztiei ordaintzeko eskatzen dute

Urdulizko ospitaleko langile gehienek bat egin zuten otsailaren 3an sindikatuek deitutako 24 orduko grebagaz. Txandakako lanen osagarriak ordaintzeko exijitzen dute.

SATSE, LAB, ELA, ESK, UGT eta CCOO sindikatuek deituta, 24 orduko greba-eguna egin zuten Urdulizko ospitaleko beharginek otsailaren 3an. Hasteko, 07:00etan manifestazioa egin zuten Larrabasterratik ospitalera, eta, bertan, elkarretaratze jendetsua egin zuten; lanuzteak hurrengo egunera arte jarraitu zuen.

«Urte bi baino gehiago daramatzagu borrokatzen Urdulizko ospitaleak ez dituelako txanda-osagarriak ordaintzen», adierazi duenez Eunata Sanchez erizaina eta SATSE sindikatuko bozeramaileak. Azaldu duenez, 2017ra arte osagarri horiek kobratzen zituzten langile denek, «baina, bat-batean, batzuei ordaintzeari utzi zioten».

Ez dakite ospitaleko zuzendaritzak zergatik utzi zion osagarri horiek ordaintzeari, asteburuetan hiru txanda egiten dituztenei oraindino ordaintzen dizkietelako: «Astelehenetik igandera hiru txandak lan egiten dutenek bai kobratzen dituzte osagarriak, baina astean zehar arratsalde zein goizez txandak egiten dituzten askok ez dituzte jasotzen». Gainera, hori salbuespen bat dela diote, Osakidetzaiko gainontzeko zentroetako txanda-osagarriak ordaintzen dituztelako.

NEGOZIAZIOAK. Hasiera batean, ospitaleko gerentziagaz batzarrak egin bazituzten ere, «ez da negoziatziorik egon, bileretan beraiek hartutako erabakiak bakarrik komunikatu dizkigute», azaldu du erizainak. Negoziatzeko aukerarik ez dagoela ikusita, ordezkapena duten sindikatu guztiek mobilizazioak antolatu dituzte. Bestalde, Osakidetzaiko ardura-dunakaz harremanetan jarri diren arren, arazoa Urdulizen konpondu behar dutela azaldu du SATSEkoak: «Guk negoziatzen jartzea nahi dugu, hemengo langile guztiek soldata eta eskubide berdinak izan ditzaten, gu ez izatea salbuespena». ◀



Urdulizko ospitaleko langileek urte bi daroatzate borrokan.

ZINE GO AK

— Bilboko Gaylesbitrans
19. Nazioarteko Zinema eta
Arte Eszenikoaren Jaialdia

— 19th Festival Internacional
de Cine y Artes Escénicas
Gaylesbitrans de Bilbao

— 19th Bilbao International
Gaylesbitrans Film and
Performing Arts Festival

Otsailak 28
Febrero February
7 Martxoak
Marzo March
2022

www.zinegoak.com

Zinemaz bizi Iñigo Esteban Lezkano

Errealitateak fikzioa gainditzen du



Sinesgaitzena errealitate bihurtzeko gai den garai hauetan, gero eta zailagoa dirudi imajinaezina telebistara, zinemara edo edozein pantailara eramatea, errealitateak fikzioa gainditzeko gai baita gero eta modu azkarrago batean.

Zientzia-fikziozko zinema arlo guztietan berrikuntzak sartzen saiatu behar da, gaur egun oso zaila delako atentzioa erakartzen duen zerbait idaztea. Teknologiak aurrera egiten duen abiadurarekin, filma zinemetara heltzen denarako, beste planeta batera doan bidai ikusgarri bat, migrazio interplanetarioari buruzko drama sozial batean bihur daiteke.

Zinema-mota honetako lan ezagunenek aurrekontu handiekin egin ziren, baina horrek ez zuen arrakasta ziurtatua. Izan ere, dirutza erabilita ere, espero zen mailara heldu ez ziren film asko daude ere, bildutako diruaren zein kritikaren ikuspegitik. Arazoa? Teknikak gaizki erabiltzea, anbizio gehiegi izatea, gidoi desagokia edo produkzioaren eskakizuna.

Diru askorekin egindako film makalaren adibide bat da Roger Christianek zuzendutako *Battlefield Earth* (2000); L. Ron Hubbard zientziologiaren sortzailearen liburu batean oinarritu zen, eta John Travolta izan zen aktoreetako bat. Baliabide apartak izan arren, porrot egin eta aldizkari espezializatu askok harraskadako filmik txarra izendatu zuten.

Beste adibide bat Roland Emmerich zuzendariaren *2012* (2009) da, maiek iragarri zuten munduaren amaierarekin erlazionatutakoa. Efektu berezi ikusgarriak izan arren, ez zuen aparteko bestelakorik eskaini; funtsik gabeko filma da, non garapen teknikoek pena mereziko lukete beste guztia desagertuko ez balitz.

Gerta liteke, baita ere, filma estreinatzen den unea egokiena ez izatea; hau da, momentuan arrakastarik ez izatea baina denbora batera, beste testuinguru batean, merezi zuen arrakasta lortzea. Horren adibide dugu Ridley Scott ezagunaren *Blade Runner* (1982), gaur egun oso baloratuta dagoena. Diru gutxi bildu zuen hasieratik, eta *E.T.* (1982) filmarekin batera estreinatu izanari egozten diote askok. Garai hartan, kritika zatituta egon zen: alde batetik, efektu bisualak mundu ilun hori sor-

***Battlefield Earth* (2000)*****Blade Runner* (1982)*****The Man from Earth* (2008)*****Primer* (2004)**

tzeko erabiltzea baloratzen zuten; bestetik, uste zuten ez zela espero zen akzio-filmaren mailan egon. Denboraren poderioz, baina, zinemaren historian eragin handia izan duen filmetako bat bilakatu da.

Aurrekontu handiarekin espero zuten maila lortu ez zuten pelikulak bezala, kontrako kasuak ere badaude, aurrekontu oso txikia zuten filmak askogatik espero zena gainditu zutenak, hain zuzen ere. Irudietara eramateko oso zailak diren gaiak lantzen dituzten filmak dira horiek, baina sortzaileen trebeziari esker, gidoiari, filmatze-teknikei, baita protagonisten lanari esker ere, gai izan dira helburua lortzeko eta zientzia-fikziozko pelikula on bat aurkezteko. Ia baliabiderik, efektu berezirik eta bisualik gabe, baina behar den guztiarekin espero dena gainditu duten horiek dira.

The Man from Earth (2007) Richard Schenkmanek zuzentzen duen istorio honetan, gizon batek 14.000 urteko bizitza duela jakinarazten die lagunei. Ondorioak gure buruan gertatuko dira, filmak erein dizkigun ideiei esker. Horrek, besteak beste, frogatu du ikusgarritasuna ez dela bakarrik pantailan ikusi behar.

Beste adibide asko daude, baina nabarmenetako bat da *Primer* (2004); aurrekontu oso txikiarekin emaitza handia lortzen zuen Shane Carruthek egindako filma. Zuzendaria eta protagonista izateaz gain, produkzioaz, gidiaz, musikaz eta argazkigintzaz arduratu zen Carruthek, eta, aurrekontua ikusita, asko harritzen du emaitzak. Lan horretan ikus daitekeenez, ingeniari batzuek esperimentuak egiten dituzte euren denbora librean, garaje batean, eta konturatzen dira azken sorkuntzak ohiz kanpoko zerbait lortzen duela. Originaltasun, zientzia eta tentsioz betetako istorio honek pelikula onenaren epaimahaiaren sari nagusia lortu zuen Sundance jaialdian.

Zineman, bizitzan bezalaxe, ezer ez da hobeagoa garestiagoa izateagatik, eta ez da aberatsagoa gehien duenak, gutxien behar duenak baizik. ◀

Euskarari, atara kontuk! Joanes Atxa Olaiz

Ba al dakizu Instagram erabiltzen?



Euskalkien ikerketan, bada oraindik aztertu gabe jarraitzen duen ozeano zabal bat. Sare sozialek eta XXI. mendeko komunikazio bide berriek gure hizkeren erabilerarako aukera paregabeak zabaldu dizkigute, eta horien barrenean sartzen saiatuko gara.

Euskararen dialektoak aztertzen jarrita, Euskal Herriko hainbat herritan bildu diren datuak begiratzen has gaitezke. Milaka elkarrizketa aurki ditzakegu sarean, eta hamarnaka liburu har ditzakegu liburutegietako «Euskal gaiak» atalean. Bilatzen hasita, nahikoa datu bildu ditzakegu behar dugun informazioa eskuratzeko. Hortaz, esan dezakegu azterketa egina dagoela jada, ez dagoela ezer berririk aztertu beharrik. Bada, horrela jokatz gero, jai daukagu!

Batetik, euskal hizkerari buruz jaso diren datu guztien ehuneko handi bat metodologia zehatz honekin jaso da: elkarrizketatuak gizonezkoa, adinekoko eta herritik bertatik gutxitan ateratakoa izan behar zuen. Esan beharrik ez dago, XXI. mende aldakor eta zoragarri honetan dezente atzerakoi gelditu zai-gula datuak biltzeko modu hori.

Eta bestetik, bada nik ezin garrantzitsua-go ikusten dudana huts bat: non dago Instagram? Non dago Twitter? Eta WhatsApp? Munduan 600 milioi txio, 100 milioi argazki eta 100.000 milioi whatsapp igortzen dira sarera, egun bakarrean. Bada garaia sare sozialetako euskarari begiratzeko, ez duzu uste?

Egin dezagun sorkuntza eta irudimen ariketa erraz bat. Goizean goiz altxatu eta esnea

«Egunero, 600 milioi txio, 100 milioi argazki eta 100.000 milioi whatsapp-mezu igortzen dira sarera mundu osoan. Horietatik guztietatik, zenbat euskaraz? Eta zein hizkeratan?»

berotu bitartean, Instagramen sartu zara, eduki interesgarrien bila. Institutuko lagunak asteburuan ateratako argazki berria igo du, eta inbidia apur bat ere piztu zaizu; bazenekien azterketarako ikasten zeunden bitartean, zure lagun horrek mendira txangoa egingo zuela larunbatean. Argazki-oinean esaldi hau: «Anbatora igotzen, *Urkiolati*». Uribe Kostan, nondik bezalako kasuak adierazteko *-ti* marka erabiltzen dugu (Euskara Batuan jarri ohi den *-tik* marka baino zaharragoa omen dena), eta zeinen ondo zekien zure lagunak Anbatora igotzeko biderik politena *Urkiolati* hasten zela.

Egunak aurrera egin du jada, eta eskolatik etxera bueltatzeko ordua iritsi da. Lehengusurekin elkartu zara meriendatzeko asmoz, baina whatsapp bidali dizu: «Ez itxaron, *belu* helduko naiz». Horrela esaten diogu gure hizkeran *berandu* heltzeari, *belu*. Txokolatezko palmeraren zaporea ezpainetan zenue-nean, lehengusua iritsi arte itxaron beharko!

Errealitatera bueltatuz, badugu zeregina hemendik aurrera. Gure herrietako hizkerari begiratzeko estereotipo klasikoak alde batera utzi eta ikusmira berriak zabaltzea posible den bezala, posible da gure hizkerak berezko dituen aldaerak whatsapppeko kontaktuen artean erabiltzea. ◀

SANIKOLAS
ERDIGUNEAN ZU

SANIKOLAS.EUS
Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

A hand reaches out from the right side, touching a large, deeply textured green leaf. The leaf has prominent veins and some small holes, suggesting it's been eaten by insects. In the background, there are other green plants and small white flowers.

Costa Rica, paradisura ihesean

Oraingoan, Gonzalo Azumendi dugu gurean, Getxoko bidaiari sutsua eta National Geographic eta UNESCOrentzako lanean ari den argazkilaria, besteak beste. Bere berbetan, hona bidaiak berreskuratzeko proposamena: «Bi urte dira planetaren gainerakoari uko egin behar izan geniola. Baina gero eta handiagoak dira mundua berriz besarkatzeko gogoak. Costa Rica helmuga seguru gisa aurkezten da, eta eskaintzen duena guk nahi duguna da. Arnasa libre hartzeko oihanak, sumendiak eta hondartzak, jendetza handietatik urrun eta mundua berriro taupaka sentituz; *Pura Vida!*».



TAMARINDO



LA FORTUNA



FLAMINGO HONDARTZA





POAS SUMENDIA



TORTUGA UHARTEA



FLAMINGO HONDARTZA

Azumendik argazkilaritzari eskaini dio bere bizitza, ikastaroakaz,
argitalpenak ilustratuz eta hainbat erakusketagaz



LAGUNA DE ARENAL



Getxoztarrak 35 urte daroatza nazioartean freelance-argazkilari bezala bidaia-argitalpen ospetsuenetarako lan egiten. Besteak beste, Bolivian, Done Jakue bidean, Marokon eta Panamako kanalean egon da UNESCOrentzat Munduko Ondarea dokumentatzen. Irabazi asmorik gabeko La Exploradora elkarte geografikoak Azumendiren ibilbidea aintzatesteko domina eman dio aurtan, bidaien esplorazioaren eta abenturaren munduan nabarmentzen direnei urtero ematen dien sari-banaketan.



RIO CELESTE KO URJAUZIA

Lehen/Orain **Berangoko gaur egungo udaletxea, 1919an**



ITURRIA: INDALECIO OJANGUREN



Uribitakora



TESTUA
Nahikari Ayo
Acebo

DOINUA
Bazkalosteko
kafea

ARGAZKIA
Hodei Torres

Elur urte, ezkur urte!

*Pertsiana altxatu eta aibala!
Gutziz zurituta lurra.
Aldaketa klimatiko honek
eman ohi digu egurra.
Erandio Desierto zurituta
ikusi ez da gezurra!
Iluntasunak eta hoztasunak
eman dezake beldurra...
Baina leihotik begiratuta
zein ederra den elurra!*

*Ana Urrutiak Teleberrian
asmatuko ote luke...
Kostara helduko ote zenik
inortxok ez zuen uste.
Urtero Ibaizabal zurituta
gustora hartuko genuke.
Horrelako elurteek gauza
onak ekartzen dituzte;
esaerak dioen bezala:
elur urte, ezkur urte!*

*Lutxanara zuzen joateko
kaian hartuaz txalupa,
sartu eta jausi egin zaigu
gainera elur maluta.
Artez Ezkerraldera heltzeko
patroiak lema hartuta,
argitasunak erakusten du
ez gabiltzala galduta...
Gozatu elurra zein negua
ez baitago amaituta!*

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**



Lehenengo kontsulta eta ekografia doan.

Badakizu barizeak desagerrarazi daitezkeela berme guztiekin?

Hanaketako barizeen arazoarentzat konponbideren bat aurkitzen saiatu diren gizon-emakumeek hainbat tratamendu egiteko aukera topa ditzakete gaur egun, baina, halere, zalantza ugari izan ohi dituzte ezer egin baino lehen.

KIRURGIA EDO SAFENEKTOMIA. Kirurgia tradizionala edo safenektomia, guztien artean, tratamendurik erasokorrena da. Anestesia orokorra edo errakideoa behar du, eta baita hainbat egun iraun dezakeen susperraldia ere. Gainera, berriro ateratzen diren barizeen indizea % 20koa da.

N BUTIL ZIANOAKRILATO - ITSASGARRIA. Itsaskorra, N Butil Zianoakrilatoa, tratamendu bereziki egokia da barize gutxi dituzten pertsona gazteentzat. Bigarren aukerako tratamendua da, bost urterako emaitza onak erakutsi dituzten ikerketen bermea du baita ere, zain barneko laserrarekin lortzen diren emaitzak hobeagoak baitira.

ESKLEROSIA APARRAREKIN. Ekografo bidez zuzendutako aparra edo esklerosia aparrarekin zain lodi gaixoen alaben tratamendurako teknika aproposa da. Tratamendu hau safe-na zainentzat ere aproposa da, baina barizeak berriro agertzeko aukera kontutan izan behar da; izan ere, aparrarekin tratatutako zainen % 40a berriro agertzen da.


Gomendagarria da baita ere ebakuntza egin duten eta berriro barizeak dituzten pertsonentzat, kirurgia berriro ere ez badute egin nahi.

ZAIN BARNEKO LASERRA. Zain barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzen da safena zainetako gutxiegitasunak eragindako barize arazoarentzat. Horretan bat datoz hainbat nazioarteko mediku-erakundek.

Horrek esan nahi du beste tratamenduak baino lehenago gomendatzen dela, barizeak berriro agertzeko aukera gutxi daudelako, erasokortasun baxuko tratamendua delako (klinikatik oinez ateratzen da eta bizimodu ia normala egin daiteke) eta ebakuntza-ondokoa oso arina delako.

Laburbilduz, zain barneko laserra Dermiteken emaitzarik onenak izaten ari den tratamendua da. Izan ere, klinikan 2.600 kasu tratatu dituzte 2010etik, eta barize kasuen % 99,6 berriro ez agertzea lortu dute. Eta zer gertatzen da berriro agertzen badira? Dermiteken bermea eskaintzen dute: tratatutako barizea lehenengo urtean berriro agertzen baldin bada, berriz tratatuko dute, kosturik gabe.

P.S.E. 92/21



DERMITEK
Uribitate pasealekua 11-12
48001 BILBO
 (Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefonia
 944 010 110

Astelehenetik barikura:
 8:30-20:00

Zapatuetan:
 9:00-15:00





Bego Zorrozueta eta Javi Basarte Oneka eta Getxoko Pentsionisten Elkarteak

«Aurrean izango gaituzte liztor koxkor bat bezala»

Pentsiodunen mugimenduak 2018ko urtarrilean hartu zuen indarra, erretiroen % 0,25eko igoera iragartzen zuen gutun famatuaren harira. Duintasuna eta jarraikortasuna izan dira ordutik mantentzen duten borrokaren ikur nagusiak. Getxoko mugimenduko eta Onekako partaide bigaz izan da HIRUKA borroka-urteotako balantzea egiteko.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ►

2018an hasi zineten kalera ateratzen, baina, ordutik, elkarte gisa egituratu zarete leku askotan. Nola gauzatu zen Getxoko elkarteak? JAVI BASARTE: Guztia pentsiodunoi bidali ziguten gutun famatu haren kontura hasi zen: esan ziguten pentsioak % 0,25 igo-ko zituztela, urtean 32,2 euro inguru. Urtez urte bizitza garestitzen doa, eta aurretik egin-dako mozketak kontutan hartuta, konturatu ginen hori ez zela nahikoa modu duin batean bizitzeko; batez ere, kontuan hartuta oso gu-txi direla 1.000 eurotik gorako pentsioa ja-sotzen duten jubilatuak. Horrek mugimendu orokor bat sortu eta pentsiodunen platafor-mak sortu ziren udalerrietan; borrokatzeko elkartu behar ginen, eta eskari ofizialak eta horrelakoak egiteko elkarteak sortu behar ge-nuen. Horren harira, Getxoko Pentsiodunen Elkarteak osatu genuen; antolatze modu bat izan zen, batez ere.

BEGO ZORROZUA: 2019an sortu genuen el-karte ofizialari esker oihartzun gehiago lor-tu dugu, eta erakunde publikoek ere jaramon gehiago egitea lortu dugu. Udalarengana jo-tzen dugunean, kasu gehiago egiten digute; norbanako moduan joango bagina, nahiz eta eskubide osoa izan, ez genuke erantzun bera jasoko. Beraz, elkarteak osatzea erabaki genuen benetan arduratzen gaituzten arazoetan arda-tza jarri ahal izateko: Getxon egin daitezken hobekuntza sozialetan eragiteko, hain zuzen.

«Errealitate asko daude Getxon, eta guk kanpaina indartsuak egiten ditugu jendea erakartzeko, baina herritarrak mobilizatzea asko kostatzen zaigu»

BEGO ZORROZUA
GETXOKO ONEKAKO ARDURADUNA

«Askori entzun diet esaten beraientzat ez dela pentsiorik egongo. Horrelako pentsamenduarekin eta borrokatzeko kontzientzia barik ez dugu ezer lortuko»

JAVI BASARTE
GETXOKO PENTSIONISTEN
ELKARTEKO IDAZKARI NAGUSIA

COVID-19aren izurriteak bete-betean harra-patu zintuzten protesta jendetsuenak egiten ari zinetenean. Nola eragin dio horrek mu-gimenduari? B.Z.: Pandemiak izugarrizko beldurra eragin digu guztioi, baina bizitzeko modu bat bezala hartu dugu; ohitu egin gara nolabait. Horren ondorioz, lehen nekez atera-tzen zen jende asko orain ez da ezta inolaz ere ateratzen, eta jende hori nagusia da gehien-bat. Esaten dugu jende hori COVID-19aren eraginez hilko dela, baina ez gaixotasunaga-tik, bakardadeagatik baizik, izugarrizko ara-zoa baitago pertsona nagusien artean.

J.B.: Bai, guztiz harrapatu gintuen. Pen-tsa, Toti Martinez de Lezea idazleagaz kon-ferentzia bat geneukan prestatuta Algortako Villamonte kultur etxean, baina egun horre-tan bertan itxi zuten guztia, eta jendea etxe-ra bidali behar izan genuen. Hala ere, ordu-tik lan asko egin dugu: berbaldiak, batzarrak eta mobilizazioak; beraz, dena ez da geldituta egon.

Emakumeak dira pentsiodunen artean bal-dintza txarrenak pairatzen dituztenak; hori ikustarazteko, Oneka Euskal Herriko Ema-kume Pentsionisten Elkarteak sortu zenu-ten. Zerk eragiten du emakumeak izatea kasu honetan ere kolektiborik zaurgarrie-na? B.Z.: Kontutan hartu behar dugu nondik gatozen, gaur egungo egoera lehendik dato-

rrela hein handi batean. Arrakala izugarria dago emakumeen eta gizonen artean: zaintza gure gain uzten jarraitzen da beti, lehen emakumeak lana utzi behar zuten ezkontzen zirenean, eta, gaur egun, lanean daudenak kontratu txarragoak izan ohi dituzte, eta seme-alabez eta etxeko gauzez ere arduratu behar dira. Kontua da pentsio oso baxuak dituzten emakume asko daudela, bakarrik bizi direnak gainera; beste askok pentsio nahikoa jaso arren, seme-alabak etxera bueltatu behar izan zaizkie, lana galdu dutelako; beraz, 800 euroekin familia osoa mantendu behar dute. Arazo horiek ikusarazteko eta gu ahalduzko Oneka sortu genuen, iruditzen zaigulako gaur egun, oraindik, bidegabekeria sozial izugarria jasaten dugula emakumeok.

Zuek Getxoko Pentsionisten Elkarteko ki-deak zarete. Zeintzuk dira bertako ezaugarri bereizgarriak? B.Z.: Askotan esan da Getxoko pentsionistek kobratzen duten bataz bestekoa oso altua dela, baina 400 euroko pentsio minimoa jasotzen dituzten pertsona asko daude. Baina lotsagatik edo zer esango dutenaren beldur direlako ez dira mobilizazioetara etortzen. Elkartzen garenok ez gara pentsio txikienak ditugunak, eta erretiro maximoa kobratzen dutenek esaten digute ez direla ausartzen manifestazioetara etortzen, baina guk esaten diegu gutxien kobratzen dituztenen alde borrokatu behar dutela eurek ere. Errealitate asko daude, eta guk kanpaina indartsuak egiten ditugu jendea erakartzeko, baina herritarrak mobilizatzea asko kostatzen zaigu. Une honetan hori da gure lehen-dabiziko helburua: jende gehiago erakartzea mobilizazioetara.

Beste gatazka sozial batzuetan ere inplikatu zarete. Horrek beste ikuspuntu bat eta indar gehiago eman die? J.B.: Bai, guk beste hainbat mugimendu ere babesten ditugu, hala nola osasun publikoaren aldeko mobilizazioetan egon gara, eta, orain, denon ahotan dagoen lan-erreformaren harira ere mobilizatu gara. Pentsatzen dugu gure interesen kontra ere doala erreforma hori, eta guri ere eragingo digula, besteak beste, enpresek izango dituzten zerga-onuren bitartez diru gutxiago batuko delako eta gizarte segurantzakaltetuko dutelako. Gastuei aurre egiteko nonbaitek atera beharko dute dirua; zer egingo dute, pentsioen kutxatik hartu berriz ere?

Getxoko Udalari ere hainbat erreklamazio egin dizkiozue. Nolako harremana mantentzen duzue? B.Z.: Getxoko Udalari hainbat proposamen egin dizkiogu, bai, besteak bes-



Getxoko Pentsionisten Elkarteko manifestazioak Algortako Telletxe plazan, Bilbon

Sopela eta Berangoko mugimenduak aitzindariak izan arren, elkartea sortzeko orduan egondako eztabaidengatik Uribe Kostako Pentsiodunen Plataformatik ateratzea erabaki eta Getxoko elkartea sortzea erabaki zuten. Hala ere, oraindik atea irekita dagoela eta elkarlanean jarraitzeko prest daudela adierazi dute.

te, autonomoak eta bakarrik bizi diren pertsonen laguntzeko zerbitzu bat sortzeko eskatu diegu; bakardadean bizi den jendearen egoera aztertzea eta konponbideak bilatzea, hain zuzen. Horren harira, Udalak lizitazio prozesu bat atera zuen ikerketa bat egiteko. Apur bat mesfidati gaude horrekin, iaizko martxoan egin genielako eskaera eta zerbait egin duten arren ez direlako gehiegi mugitu. Horretaz gain, aurrez aurreko arreta emateko leihatila bat ere eskatu genien.

J.B.: Udalerrri guztietan egin zen bezala, mozio bat aurkeztu genuen udalak gure alde jar zitezten eta gure aldarrikapenak babes zitzaten, baina, Getxon, EAJk eta PSE-EEk gure mozioa baztertu zuten. Beraiek partzialki onartzeko aukera proposatu ziguten, baina gu ez ginen hautabide horregaz ados egon, eta mozioa ez zen aurrera atera. Beste udalerrri batzuetan ez zen hori gertatu, eta mozio bera onartua izan zen.

Azkenaldian, batez ere, bankuakaz zuzeneko arreta ez desagertzeko eskatzeko borrokan aritu zarete. Jaramon egin dizute? J.B.: Banketxeak jende nagusiari estortsioa egiten ari dira: sukurtsalak eta kutxazain automati-



eta Areetako Xake plazan tartekatzen dituzte astelehenero.

koak kentzen ari dira eta, lagundu beharrean, dena internetez egiteko esaten digute. Hala ere, badirudi Espainiako Gobernuari presioa egiten ari direla, bankuek adineko pertsonen laguntzeko prozedura bat ezar dezaten. Gure aldetik, Getxoko banketxeetara joan ginen gutun batez, jende nagusiari egiten zaion arretaren inguruan erreklamazio bat egiteko, ilara izugarriak egiten baitira kale gorrian.

B.Z.: Dena interneten bidez egitera behartu gaituzte, baina guretzako hori ez da balizkoa, guk aurrez aurrekoa exijitzen dugu, askotan seme-alaben laguntza behar dugulako horiek erabiltzeko. Gainera, horretarako, internet eta gailu adimendun bat edo ordenagailua izan behar dituzu, eta 400 euroko pentsioa duen pertsona batek nola ordainduko ditu gauza horiek?

Beste belaunaldi gazteagoetako jendea erakartzeko helburua ere duzue. Lortu duzue?

B.Z.: Azkenaldian hori ari gara lantzen. Gazte gutxi etorri ohi da gure manifestazioetara, baina gero eta gehiago direla esango nuke; kontzientzia hartu dute eta ikusten hasi dira beraiek ere pentsiodunak izango direla egunen batean. Gainera, beste mugimen-

Aldarrikapen eta helburuak

Pentsioen mugimenduak hasieratik finkatu zuen pentsio-sistema publiko, duin eta justu baten alde borrokatzeko helburua. Horretarako, hasieratik argi eta garbi izan dituzten aldarrikapenak mantendu dituzte:

- 2011ko eta 2013ko pentsioen erreformen alderdi erregresiboak indargabetzea.
- Lan-erreforma indargabetzea.
- Pentsioen errebalorizazio automatikoa, legeak bermatutako KPI errearen arabera gutxienez.
- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa.
- Lanbide arteko gutxieneko soldata: 1.200 euro.
- Soldatetan eta pentsioetan dagoen generoen arteko desberdintasunak azaltzea.
- Erretiro aurreratua penalizatu gabe.
- Koordinketa sanitarioa eta «medikamentazioa» indargabetzea.
- Pobrezia energetikoa desagerraraztea.
- Pentsiodunen parte-hartzea eragiten dieten erabakietan.

Horretaz gain, emakume pentsiodunak ordezkatzen dituen Onekak, aipatutako aldarrikapenei gehitzen zaizkien bere helburu propioak ere baditu:

- Emakume nagusien pobrezia salatzea.
- 65 urtetik gorako emakume guztientzat 1.080 euroko pentsioa.
- Emakume nagusien aurkako indarkeria, infantilizazioa eta informazio eza salatzea.
- Emakume nagusiak subjektu politikoak bihurtzea.
- Heriotza duina izateko eskubidea aldarrikatzea.

du batzuetatik ere deitzen gaituzte ekintzetan parte hartzeko. Adibidez, Onekari esker mugimendu feministarekin zegoen arrakala hori kentzea eta elkarrekin gauzak egitea lortu dugu, aurretik ez genituelako emakume nagusiak ordezkatuak ikusten. Bestalde, uste dut gazteek arazo nahiko dituztela lan prekarioekin, ikasten etorkizun bat izateko eta beraientzako etxebizitza bat lortzeko. Bizitza bat eraikitzen saiatzen dira, baina ez daukate aukerarik modu duin batean bizi ahal izateko. Horrek ez du esan nahi ez dutenik gure borroka babesten. Jendea kontzientzia hartzen ari da, baina, denak bezala, horrek ere bere denbora beharko du. Gainera, orain datozen belaunaldi gazteak beste indar batekin datoz; batez ere feminismoaren arloan ikusten dut hori.

J.B.: Badirudi gazteagoa den jende askok, batez ere 40 urte inguruan dabiltzanak, uste duela kontu hau ez doala beraiekin; askori entzun diet esaten beraientzat ez dela pentsiorik egongo. Horrelako pentsamenduarekin eta borrokatzeko kontzientzia barik ez dugu ezer lortuko. Gure belaunaldia hainbat mugimendu eta borrokatzen egon da sartuta, eta, orain ere, horretan gabilta. Egia da denetarik dagoela, baina, oro har, jende gazte gehiena amorfo dago, baita jende nagusi asko ere; jende horrek klase-kontzientzia hartu behar du, besteak beste, biharko pentsioen alde borrokatzeko.

Nola ikusten duzue etorkizuna; borrokan jarraituko duzue?

B.Z.: Noski baietz. Baina nahiko urte gogorra datorkigula pentsatzen dut, beraz, kalean jarraitu beharko dugu beste behin. Hala ere, nik uste dut gero eta mugimendu sozial gehiago elkartzen joango garela, nolabaiteko fusioa egongo dela, eta, horrek, nahitaezko aldaketa bat eragingo duela gizartean. Horretarako, borrokatzea eta lan egitea guztiz beharrezkoa da, eta gu prest gaude. Oneka moduan Euskal Herri mailan asko mugitzen ari gara, gero eta jende gehiago erakartzen ari gara; beraz, lehen ausartzen ez ginen gauzak egiten hasi gara, emakumeak ahalduz jarraitzen dugu.

J.B.: Lanean eta borrokan jarraituko dugu. Gure belaunaldia aldarrikatzailea izan da, eta borrokatzen jarraitzeko arrazoi asko dauka oraindik. Komunikabideetatik ere desagertu gara hein handi batean; ez dugu lehen geneukan presentzia, baina guk hor jarraituko dugu. Hasieran, Bilbon egindako manifestazio jendetsuenetako batean hainbat komunikabidek egin zidaten elkarrizketan esan nuen bezala, «aurrean izango gaituzte liztor koxkor bat bezala». ◀

Txikiteroak 50. urteurrena

Txikiteroek blusa jantzi, makila hartu eta kantuan ospatu dituzte urrezko ezteiak

Lagun batzuen arteko ekimen solidario batetik jaio zena ohitura bihurtu da Plentzian, eta, mende erdi geroago, blusa eta makilagaz, berriro aterata dira kalera Agate Deunako abestiak kantatzera.

ANDER ZARRAGA ►

Abestiak dioten bezala, «aterik ate ohitura zaharra/aurten berrizteko asmoz», Plentziako Txikiteroek mende erdia bete dute aurten. 1972ko Errege Egunean, Pauli tabernan txikiteoan zeuden sei lagunek Barrikako asilo-ospitaleak zituen behar ekonomikoei nolabait laguntzeko erabakia hartu zuten. Horretarako, Agate Deunaren bezperan blusa jantzi, makila hartu eta abestera aterako zirela erabaki zuten; kantak dioten legez, dirua batzeko beraien ahotsak baliatuko zituzten: «*Ez gaude oso aberats diruz/ezta ere oinetako; baina ezta-rriz sano gabiltza/ta kanta nahi dugu gogoz*».

Horrela, jaio zen Plentziako Txikiteroen Santa Agedan abestera ateratzeko ohitura, eta, urtez urte, hiribilduko eta eskualdeko udalerriak kantuz pozten dituzte, Barrikako Elorduy nagusien egoitzarentzako limosnen truke. «Beharrak aldatzen joan dira, eta, gaur egun, guk ematen diegun diruagaz txango bereziak egiten dituzte; esaterako, Bilbainadak abesten joaten zaizkie», diosku du Iñaki Susaeta Txikiteroen taldeko kideak.

Hasiera batean, Txikiteroak Plentzian bakarrik ateratzen ziren, baina taldea egonkortzen joan zen heinean, ibilbidea egoitzaren inguruko udalerrietara zabaltzen zuten. Susaetak diosku orain egun bi hartzen dituztela: lehenik, Agate Deunaren bezperan, Urduliz, Sopela, Larrabasterra, Barrika, Lemoiz eta Gorlizera joaten dira, bazkari eta guzti; eta, hurrengo egunean, otsailaren 5ean, aldiz, Plentziako kaleetatik aritzen dira kantuan. «Antzinatik eginda daukagun ibilbidea jarraitzen dugu; eguraldiaren arabera batzuetan aldatu arren, abesteko leku bereziak, hunkigarriak, mantentzen ditugu, Gorlizko ospitalea edo Barrikako egoitza bera, adibidez». Horren ostean, egun berezi bat hartzen dute nagusien egoitzara joan eta batutakoa eman eta abesti batzuk kantatzeko.



Aurten, 50 lagun inguru aterata dira Plentzian blusa eta makilagaz abestera. © TXIKITEROAK

6

Aurten, ohiturari ekin zioten sei lagunak omenduko dituzte: Manu Saez, Luis Oliva, Jose Antonio Macias More, Jose Luis Artolozaga, Jose Antonio Zuazo eta Luis Perez Sacerdote

16.000

pezeta batu zituzten 1972an egin zuten lehen ateraldian.

50

urteotako ibilbidea batzen duen erakusketa dago ikusgai Goñi Portalen. Argazkiak, prentsa zatiak eta baita Agate Deunaren adierazgarriak diren blusa, txapela eta makila daramatzan maniki bat ere ikus daitezke bertan.

Eskuzabaltasunetik jaiotako ohitura bizibizi mantentzen da Plentzian, eta, otsailaren 5ean, Santa Ageda egunean, 50 lagun inguru aterata ziren, makilagaz erritmoa markatuz, *Agur Jaunak, Agate Deuna, Santa Ageda, Zorion* eta *Jeiki Jeiki* abestiak kantatzera. «Antzinateko kantak dira, berriztuta, eta guk lau ahotsak ere abesten ditugu; beraz, horrek entsegua behar du».

BIZIRIK DAGOEN OHITURA. Salbuespen bakarra iazkoa izan zen, COVID-19aren ondorioz abesbatzak ezin izan zuelako kalera aterata. Aurten ere ibilbidea murriztu behar izan dute, eta ez dituzte Uribe Kostako udalerriak bisitatu. Hala ere, Siziliako santuaren egunean Plentziako bazterretan abesten aritu dira, eta hurrengo urteetan ohiko ibilbidea berreskuratzeko dutela iragarri dute.

Abesbatzako kide gehienak gizonak izan arren, zuzendariak emakume bi dira: Ines Peña eta Saioa Unibaso. Eurak arduratzen dira korua gidatzeaz eta abenduaren amaieran hasten diren entseguak antolatzeaz. Horietaz gain, dirua batzeaz arduratzen diren poltsa-zainak ere badaude. Susaetak azaldu du edonor batu daitekeela ekimenara, «ez da horrelako musika-gaitasun berezirik eduki behar». Gainera, azken urteetan jende gaztea ere sartu dela dio; hala ere, ohituraren jarraitapena bermatzeko gustatuko litzaieke herriko gazte gehiago animatzeko balira.

Aurten, 50. urteurrena ospatzeko, omenaldia egingo diete ohitura hasi zuten sei lagunei, eta, horretaz gain, mende erdiko ibilbidea gogoratzeko erakusketa antolatu dute Goñi Portal kultur etxean. ◀

Natalia Monge Gomez *Arnasa* dantza-ikuskizun inklusiboa

«Aldaketa emozionalek arnasketan nola eragiten diguten azaldu nahi izan dugu»

Joan den urtarrilaren 28an aurkeztu zuen Organik konpainiak *Arnasa* dantza-ikuskizun inklusiboa. Zailtasunak zailtasun, orain, beste hiru saio eskainiko dituzte, Bilbon, Donostian eta Galizian.

IKER RINCON MORENO ►

Adi-adi, taula gainean dauden gizon-emakumeen mugimendu eta esaldi guztiei so harrapatu dugu Natalia Monge Gomez Organik dantza- eta antzerki-konpainiaren zuzendaria eta ko-reografoa. Pilar Andres, Carlos Alonso, Mikel Aristegui eta Jon Ander Garamendi interpreteak ditu aurrez aurre, arnasaren nondik norakoak lantzen; horixe da, izan ere, urtarrilaren 28an Kultur Leioan aurkeztu zuten antzezlanaren izenburua: *Arnasa*. Zuzendariak dioskunez, zuzeneko musikak lagundutako ikuskizun inklusibo bat da hori.

Arnastea oharkabeko ekintza bat da; jaiotzen garenean egiten dugun lehenengo gauza da, eta egiten dugun azkenengoa hiltzen garenean. Tarte horretan, norberak bizi dituen emozioen arabera arindu edo moteltzen da. «Poztuta gaudenean, inspirazioak oso handiak izaten ditugu, eta energia gora doa; gaizki gaudenean, aldiz, kontrakoa gertatzen zaigu», dio Natalia Monge Gomez zuzendariak.

Norbera zelan sentitzen den islatzen du arnasketak, eta horren inguruko gogoeta interesgarria proposatzen du, zehazki, *Arnasa* antzezkitunak. Mongek dioenez, duela urte bi den-denok konfinatuta geundenean bururatu zitzaion gaia lantzea: «Bat-batean, antsietate kasu bi izan nituen; kontrolaezineko esperientzia izan zen, bitxia, nire gorputza kontrolatzeko gai nintzela uste nuelako ordura arte». Eta, bizipen horiek inguruko jendeagaz konpartitu ondoren gaia oso ohikoa dela egiaztatu arren, normalean konpartitzen ez direla deitoratu zuen, baita behar hori aldarrikatu ere: «Gizakiak garen heinean, gure barruko arazo guztiak ondokoarekin konpartitzea garrantzitsua da, laguntzen digulako horri horrenbeste garrantzia ez ematen, eta, horrela, blokeoak eta ezulertuak saihestuz». Horretarako, gainera, dibertsitatearen ikuspegitik abiatutako hausnarketa mahai-gaineratu gura izan



J.A. Garamendi, M. Aristegui, C. Alonso, N. Monge eta P. Andres. HO DEI TORRES

Antzokietan entseatu?

«Hainbat udalerritan, ordu askotan hutsik dauden antzokiak daude, eta zailtasun asko ditugu horiek erabiltzeko. Guretzako luxua litzateke hori»

Getxon taularatu guran

«Gutako hainbat getxoztarrak gara, eta asko gustatuko litzaiguke obra hau Muxikebarri Antzokian taularatzea»

du lanak, proiektu inklusiboa baita: «Aspaldi izan dut interesa mota honetako proiektu bat garatzeko. Horretarako, tailer batzuk prestatu genituen dibertsitate funtzionala zuten gizon-emakumeekin, eta, horretarako, hainbat kolektiborekin batu ginen Getxon».

Tailer horietan, konpainiako lagunek Gaudete eta Síndrome de Down elkarteetako hainbat kidegaz batuta, arnasaren nondik norakoak landu zituzten, fisikoki eta emozionalki.

Hortik abiatuta, dibertsitate funtzionala zuen pertsona bat fitxatu –Carlos Alonso– eta proiektuari forma ematen hasi ziren. «Tailer horiei esker topatu genuen Carlos, eta opari izugarria izan da guretzat, bai proiektuarentzat baita gure bizitzarentzat ere».

Joan den abuztuaren akabuan hasi zituzten entseguak, eta zailtasunak zailtasun, urtarrilaren 28an estreinatu zuten lana Kultur Leioan. «Leku askotan entseatu behar izan dugu; guk, konpainia moduan, ez dugu leku finkorik prestaketa-lanak egiteko, eta, ondorioz, leku publikoak erabiltzen ditugu», diosku Mongek. Horrek, gainera, lanen eszenografiaren eragina izaten duela deitoratu du, «ezin garela aurrera eta atzera ibili gauza askorekin; ezinezkoa da mugitzea bestela». ◀

Otsail-martxoa

Berango

Otsailak 26, zapatua

Inauteriak

16:00-19:00 | Berango Merana ikastetxean
Super-heroiz mozarrotuko dira Berangoko eskolan. Aurretik, ludotekan mozorroa egiten erakutsiko diete umeei; izena eman behar da.

Martxoak 6, domeka

Umeentzako jarduera: *Piztu! emakumeon energia*

18:00 | Berango antzokian

Biltzar zientifiko ero eta dibertigarri honetan, aktore bik dena hankaz gora jarriko dute.

Erandio

Otsailak 20, domeka

Antzerkia: *Salaketa + Tabernaria*

19:00 | Josu Murueta kultur etxean

Tartean Teatro konpainiako Mikel Martinez eta Gaizka Chamizo aktoreek antzerki bi eskainiko dituzte.

Otsailak 25, barikua

Inauterietako kontzertua

18:30 | Josu Murueta plazan



Dantza: *Dantzori-Gure Aratusteak*

19:30 | Mendiguren plazan

Trabudu dantzari taldearen musika-, dantza- eta antzerki-ikuskizuna.

Getxo

Otsailak 28, astelehena

Umeentzako ikuskizuna: *Enperadorearen kondaira*

12:00 | Muxikebarrin

Antzinako Txinan girotutako itzalen antzerkia.

SARRERAK
ZOKATZEKO
43.
ORRIALDEAN

Otsailak 16, eguaztena

Kontzertua: Jon Maia

19:30 | Muxikebarrin

Kantu bat gara lanaren aurkezpena.

Martxoak 2, eguaztena

Antzerkia: *Altsasu*

18:00 | Muxikebarrin

Martxoak 4, 5 eta 6

Algortako inauteriak

Aste-akabu osoan zehar, umeentzako tailerrak, mozorro txapelekta, fanfarrea eta desfileak egingo dituzte, beste ekintza askoren artean.

Gorliz

Otsailak 25, barikua

Inauteriak

18:30 | Ibarreta eta Eleiz plazetan

Aratz dantza taldeak kalejira eta ikuskizuna eskainiko ditu.

Otsailak 26, zapatua

Inauterietako tailerrak

11:30 | Frontoian eta Elexalden

Umeentzako eskulanak eta, 20:00etan, fanfarrea.

Otsailak 28, astelehena

Ludotekako inauteriak

11:00-13:00 | Ibarreta plazan

Leioa

Otsailak 26, zapatua

Pailazoak: Potxin eta Patxin

18:00 | Kandelazubietan

Ingurumena zaindu ikuskizuna eskainiko dute pailazoek. Mozorrotuta doazenek sarrera doan izango dute.

Martxoak 1, martitzena

Zirkua eta magia

12:00 eta 18:00 | Kandelazubietan

Zirika Zirkusek *Hemendikara* emanaldi harrigarria eskainiko du 12:00etan, eta, 18:00etan, Tor Magoa egongo da *Amarru* ikuskizunagaz.

Martxoak 6, domeka

Antzerkia: *Maskotak*

18:00 | Kultur Leioan

Umeentzako antzezlan: Zer gertatuko litzateke animaliak izango balira giza maskotak dituztenak?

Plentzia

Otsailak 23, eguaztena

Berbaldia: *Eukaliptusa eta bertako basoa*

19:00 | Goñi Portalen

Plentziako Herri Lurak elkarte ekologistak Arturo Elozegi EHUKO irakaslea gonbidatuko du.

Otsailak 25, barikua

Altxorraren bila: inauteriak

18:00 | Jai Alai pilotalekuan

Erronka, hieroglifoak eta proba desberdinak gaindituz, altxorraren bila joan beharko dira. Izena eman Goñi Portalen.

Otsailak 25, barikua

Inauterietako ipuin kontaketa

18:00 | Goñi Portalen

Ziripot, Miel Otxin, Zaldiko eta beste hainbat lagun izango dira ipuin saio honetako protagonistak.

Otsailak 26, zapatua

Gazte inauteriak

13:00 | Udalerrian zehar

Eguerditik iluntzera arteko programa oparoa prestatu dute gaztetxeko kideek. Gaia: Plentziako Udala.

Sopela

Otsailak 18, barikua

Dantza garaikidea: *Arima*

20:00 | Kurtzio kultur etxean

Amaia Elizaranen ikuskizuna.

Otsailak 26, zapatua

Kontzertua: Korrontzi

20:00 | Urko kiroldegian

Aita Mari erreskate-ontziaren aldeko kontzertua.

Otsailak 27, domeka

Kontzertua: Go!azen 8.0

18:00 | Urko kiroldegian

Umeen telesail gogokoeneko protagonistek bira berria abiatuko dute.

Otsailak 28, astelehena

Umeentzako antzerkia: *Peru krokodiloa*

18:00 | Urko kiroldegian

Musika eta dibertsioz betetako antzerkia, elkartsuna, adiskidetasuna eta errespetua landzen dituen.

Martxoak 1, martitzena

Umeentzako tailerrak

11:00 | Urko kiroldegian

Inauterietako tailerretan parte hartzeko izena eman beharko da Kurtzio kultur etxean.

Sopelako inauteriak

17:00 | Urgitxieta plazan eta Urko kiroldegian

Lehenik, kalejira egingo dute Urgitxieta plazatik, eta, ondoren, Zirika Zirkusen ikuskizuna eta mozorro-lehiaketa egingo dituzte.

Arrotzak



TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO
ARGAZKIA: ARROTZAK ▶

Engongelako apal zaharrean, hauts eta apaingarri merkeen artean, binilo-bildumari begira, normalean baino tontutuago geratu naiz, eta aspaldi lortutako diskatzarra hartu dut. Eskuetan doinu ilun eta azkarrak nabaritzen hasi naiz, *underground* eszenan eta gure herriko kulturaren B aldean urteak daraman donostialdeko hirukotearenak: Arrotzak.

Nortzuk zarete Arrotzak? Gaur egun Arrotzak Aritz, baxua; Fer, bateria-jolea eta Aritz, gitarra, gara. 2015ean hasi ginen laukote moduan, baina lehenengo kasetea atera eta gero, 2016an, Mikelek taldea utzi zuen. Ordutik, hirukote izatera pasa ginen, Fer abestetik bateria jotzera pasatuta. Talde desberdinetatik gentozen (Hell Division, Curasan, Twin Wolf, Gremliny, Petra...) eta Donostia inguruko *underground* eszenatik elkar ezagutzen genuen aspalditik. Estilo desberdinetatik gentozen, eta Wipers itxurako zerbaite zuzenagoa eta ilunagoa egiteko gogoz elkartzen hasi ginen.

Zelan ikusten duzue musika eszena Donostia inguruan? 2020an, COVID-19a etorri zenetik nahiko gelditu da erritmoa. Hala ere, jendea joan eta alternatibak bilatzen eta pixkana gauzak berriz martxan jartzen ari direla ematen du. Gu Donostia inguruko herrietakoak gara, eta beti mugitu izan gara gure inguruetako



*Lurzoru hotzetik
Vinyl, 2018*

«Betidanik izan gara talde zaratatsu eta azkarren zaleak. Era naturalean ateratzen zaigu zuzenekoetan askoz intentsitate, abiadura eta zarata gehiago ateratzea. Diskoak grabatzeko garaian, aldiz, ulergarriago eta gozagarriago egiten saiatzen garela esango genuke»

espazio autogestionatuetan. Egia da duela 10-15 urte zegoen mugimendua ez dagoela orain, baina hain kilometro gutxitan hainbeste espazio eta jende aktibo izatea sekulako pribilegioa da. Nahiz eta azken urteetan talde berri gehiegi ez egon, pandemiaren aurretik astean zehar eta astebururo bazegoen aukeraren bat bertoko zein kanpoko taldeak ikusteko. Alde horretatik beti izan gara nahikoa optimistak, eta indarrak momentuko eta aurrera begirako gauza onekin kolaboratzeko erabiltzeko zaleak.

2019an Europatik bira egin zenuten, eta ez zen batere laburra izan. Zelakoa izan zen esperientzia? Oso aberasgarria izan zen. 20 egunetan 19 kontzertu izan genituen Frantzia, Alemanian, Txekiar Errepublikan, Austrian, Eslovakian, Hungarian, Eslovenian, Kroazian eta Italian. Istorio ugari 20 egunetan. Orokorrean, autogestioaren euskarri berdinetik abiatuta, mugitzeko, bizitzeko eta organizatzeko modu desberdinak ezagutu genituen, eta etxe eta espazio desberdinetako ateak ireki zizkiguten jende eta talde eder asko ezagutuz.

Epe laburrean, proiektu berririk ba al duzue? Bartzelonako bilduma baterako eta Valentziako talde batekin atera nahi dugun EP elkarbanatu baterako abestiak grabatu nahi ditugu. Otsaila, martxoa, eta apirilerako baditugu kontzertu batzuk lotuta, eta udatik aurrera, COVID-19aren bilakaeraren arabera, ea aurretik begiraturako jiraren bat berreskuratzeko aukerarik dugun. ◀

Naiomi Matthews Borroka-kirolaria eta munduko txapelduna

Beste behin ere, Basque Teamek beka ukatu diola deitoratu du Matthewsek

Egunero-egunero, hainbat orduz entrenatzeaz gain, lan egiten du, eta inoiz kamisetak edo askotariko materiala saldu ditu borroka-kirolean lehiatzeko gastuak ordaintzeko.

IKER RINCON MORENO ►

Goi mailako kirolaria da Naiomi Matthews; borrokalaria, arlo guztietan: kirolean zein bizitzan. Azken urteotan, askotariko dominak jantzi ditu, azkenak *grappling*-eko Munduko Txapelketako urre bi. Hala ere, deitoratu duenez, oraindino ez du «behar besteko» laguntzarik jaso Eusko Jaurlaritzaren partetik: «Espainiako Federazioko bakarra naiz bere erkidegotik inolako laguntzarik jasotzen ez duena».

Borroka-modalitate ezberdinetan lehiatzen den kirolari getxoztarra da Matthews. Hamai-ka domina eta titulu lortu ditu azken urteotan: joan den azaroan, *grappling* modalitatean munduko txapeldun izendatu zen Serbian, urrezko domina bi etxera ekarrita, eta Europako txapelketan urrezko eta brontzezko domina bana jantzi zuen, besteak beste.

Goi-mailako kirolari askok bezala, gastu askori egin behar dizkio aurre maila gorenean mantentzeko. Dioenez, bere modalitateko Espainiako Federazioko kirolariek espainiar Estatuko txapelketetara joaten diren bakoitzean diru-laguntzaren bat edo beste jasotzen dute beren erkidegoetatik, «eta atzerrira joaten direnean jasotzen dituzten laguntzak are handiagoak izaten dira». Getxoztarraren kasuan, aldiz, ez du deusik jaso azken sei urteotan Eusko Jaurlaritzaren partetik, ezta Basque Teamek ere.

2016tik gaur egunera, EAEn federatuta egon da Matthews, eta behin baino gehiagotan eskatu ditu laguntzak bere jardunean aritzeko hemen. «Joan den deialdian, Basque Teamekoek esan zidaten hurrengorako –aurten– kon-



Naiomi Matthews, atzean dominak dituela. HODEI TORRES

Laguntzen beharra
Naiomi Matthewsek
dioenez, borroka-kirola
bere bizitza da, eta
maila gorenean
mantendu ahal izateko
«beharrezkoa» du
laguntza ekonomikoren
bat edo beste jasotzea,
«baina inoiz ez dut
halakorik jaso»

tutan hartuko nindutela, baina, orain, berriro esan didate ez didatela laguntzarik onartuko», deitoratu du getxoztarrak.

Azken urteotan lortutako palmaresa ikusita, agintarien partetik jasotako erantzuna «errespetu falta galanta» dela deritzo borrokalariak, «gainera, beste lurralde batzuk ordezkatzeko aukera kendu didate, eta, horrexegatik, inolako bekarik jasotzeko aukera galdu dut beste behin ere».

Baina, zein da Basque Teamek emandako argudioa Matthews laguntzarik ez emateko? Bada, «*Grapplinga* ez dela kirol olimpikoa, nahiz eta Nazioarteko Olinpiar Batzordearen barruan egon», azaldu du getxoztarrak. ◀

Maitane eta Nahia Arana Quintanilla Txirrindulariak

«Ilusioa sortzen dit ahizpa irabazten ikusteak»

Nahia eta Maitane berangoztarrek hainbat kirol praktikatu dituzte txikitatik, baina duela urte bi bizikletan lehiatzen hasi ziren, eta gurpilen gainean etorkizun handia dutela erakutsi dute.

ANDER ZARRAGA ►

Ahizpa berangoztarrek kirolagaz duten zaletasuna aitarengandik datorkiela diote. «Txikitatik, gure aita lasterketetan lehiatzen ikusi dugu eta, ahal izan dugunean, beragaz entrenatzen hasi ginen», azaldu du Nahia Aranak, bietatik gazteenak, 16 urte dituenak. «Txikitatik, kirolak asko elkartu gaitu familian», gaineratu du 18 urteko Maitane Aranak. Nagusiak triatloiak, duatloiak, ziklo-krosak eta errepideko txirrindularitza egiten ditu eta, al-diz, gazteenak, ziklo-krosak eta mendiko zein errepideko lasterketak egiten ditu; biak Miribilla BTT elkarteko kideak dira.

Iaz urte biribila izan zen bientzat: alde batetik, Maitane Bizkaiko Selekzioagaz Espainiako Txapelketan egon zen, Xativan, eta, bestetik, Nahia Euskadiko txapeldun izendatu zuten birritan, errepidean eta BTTn; Bizkaiko BTTko lehena izan zen; Euskadiko Selekzioagaz erlojupeko taldekako Espainiako Txapelketa irabazi zuen Madrilen; eta, horretaz gain, Frantzia egin zen Munduko Txapelketan ere egon zen Euskadiko Selekzioagaz. «Bi urteotan horrelako palmaresa eskuratzeko beste helburu batzuk lortzera bultzatu nau», adierazi du gazteenak.

Hasiera batean, triatloiak, igeriketa eta atletismoa egiten zituzten, Sopelako eta Berangoko taldeetan. Hala ere, pandemiak kirol horietako lehiaketak geldiarazi zituenean, txirrindularitzan hasi ziren Miribillako taldean. «Atletismoa asko gustatzen zait, baina bizikleta nahiago nuen, gainera, ikasketak eta hainbat kirol egitea uztartzeko zaila da. Beraz, txirrindularitza aukeratu nuen», dio Nahiak. Bere ahizpak erantsi du kirol biak oso gogorak direla, baina nahiago dutela txi-



Berangoztarrek BTT, errepideko bizikleta eta ziklo-krosa praktikatzen dute, besteak beste.

Nolako egoeran dago emakumeen ziklo-krosa?

«Aurten arazo nahiko izan ditugu, asko mespretxatzen gaituztelako, baina horren inguruko argi-ilunak ateratzen joan gara.

Adibidez, mutilakaz egiten ditugun lasterketetan, mutil batek doblatzen bagintuen, kanporatuak izaten ginen. Gainera, bakarrik emakumeentzako lasterketak egin nahi ez zituztenez, mutilakaz sartzen gintuzten. Horregatik, Federazioari hainbat erreklamazio egin dizkiogu, eta gutxika gauzak hobetzen doaz, baina oraindik gauza asko aldatu behar dira»

rringa, atletismoko pista «oso monotonoa» egiten zaielako. Gaineratu dutenez, bizikleta hartzeak deskonektatzeko balio die azterketa garaian, baina aste-akabuetan parrandan ateratzea eta hurrengo egunean kirol-probak egitea ez dira bateragarriak: «Hala ere, antolaketa kontu bat da, bateragarriak dira lagunakaz irtetea eta entrenatzea edo lasterketetan parte hartzea; lehenetsunak argi edukitzea da kontua», dio gazteenak.

Azaldu dute ez dagoela bien arteko lehiarik, «elkarri laguntzen diogu, eta batak besteari animoak ematen dizkiogu», azaldu du ahizpa nagusiak, eta erantsi du bere ahizpak irabazteak poz handia ematen diola: «Ilusioa sortzen dit ahizpa irabazten ikusteak».

Biak bat datoz ziklo-kros lasterketak direla gogokoen dituzten probak: «Lasterketetan denok gaude elkarrengarekin, oso giro ona egoten da, eta ez dago lehiakortasuna; ezberdina da. Denboraldia amaitzen denean, denok elkar ezagutzen dugu», dio Maitanek. «Ematen du zelai batean bueltak ematea bakarrik dela, baina askoz gehiago da, eta kategoria guztiek parte hartzen dute ibilbide berdinean», gaineratu du gazteenak. ◀

Inklusioa zugan hasten da

NEREA GARCIA LISTE Haszten kirol inklusiboa



Igeriketa egokituan aritzen den lagun batek esaten duen bezala: «Nik ez badut beste kolektiboetako errealitatea ezagutzen, nik ere hanka sartzen dut, horregatik, talde desberdinetako jendea behar dugu, kolektibo horietakoa izateak suposatzen duen errealitatea gainerako gizarteari ezagutzera emateko; zertan kale egiten dugun jakiteko, hain zuzen ere».

Baina errealitatea anitza da, eta kolektiboen barruan talde gehiago daude. Adibidez, bocciaren kasuan, mugikortasun mugatua duten pertsonak jokatzeko dute, eta kirola (testuingurua) kirolarien (pertsonen) mugitzeko modu eta joko-aukerei egokitzen zaie, berdintasunean oinarrituriko bidezko lehiaketa izanik.

Praktikan, lehiatu ahal izateak norbera konfrontazio egoeran eta zalantzan jartzea suposatzen du, jolasteko aukera zirrargarria ematen du, ondorio positibo zein negatibo guztiekin, erabakiak hartzeko aukerarekin. Joko jolasak gizartearen ispilu badira, eta horren helburua kirolaren bitartez inklusioa sustatzea bada, kolektibo honetako partaideak ez diren pertsonen txanda da! Mundu berri bat ezagut dezagun, normalak desberdinak diren lekuan gero eta sentikorragoak bilakatzen. Agian, opilari buelta ematea batzuetan zaila da, baina alde bakarretik bakarrik ez litzateke hain goxoa geratuko.

Tartanga salbatzeko garaiz

TARTANGA BERDEA



Denbora daramate esaten «ez dagoela zer egiterik», aukera bideragarri bakarra gure auzoaren etorkizuna hipotekatzea dela, geratzen zaigun berdegune bakarrean 400 etxebizitza eraikiz. Gure bizi-kalitatea eta hurrengo belaunaldiena guztiz baldintzatu nahi dute.

Tartanga Berdea taldetik ez dugu etsiko, uste dugu gehiengo sozialak ez duela eraikuntza-proiektua onartzen. Pandemia garaian, gainera, inoiz baino argiago ikusi da aisialdirako berdegune zabalen beharra eta horien falta Alzaga auzoan. Porlanean eta espekulazioan oinarritzen ez diren aukerak aztertu behar dira. Irtenbide okerreina ezin da inoiz aukera bakarra izan. Lur publikoa zenak ezin du eraikitzaile enpresa pribatuaren eskutik amaitu.

Kontrakoa esaten diguten arren, zentzugabekeria hau geldiaraz daiteke, eta gure inguruan hainbat adibide daude non jendartearen presioak antzeko proiektuak geldiaraztea lortu duen. Horregatik diogu, garaiz gabiltzala eta kalera ateratzeko unea dela.

Otsailaren 20rako, Erandioko kaleak betetzeko deia egiten dugu, herritarron mobilizazioari esker lortuko baitugu berdegunea salbatzea. Tartanga berdea posible eta beharrezkoa da!

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Lasaitasuna behar duzu; emozio handi horien atzetik ibiltzeak ez zaitu inora eramango, eta, okerrago dena: ez dizu ezer onik ekarriko.



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Musukoa aurrera eta atzera, kaleko derrigorrezko erabilera bertan behera utzi dute; begiratu ingurura, aurpegi berriak ikusiko dituzu eta!



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Arastuestetan dena izango da algara, jan eta edana; batez ere, edana. Zein izango da zure hurrengo jaia?



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Inguruko eragin txarretatik urrundu zaitetz, ez zaitetz izan ergela. Ekaitza dagoenean, onena porturako bidea hartzea izan ohi da.



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Lanpetuta, baina oso lanpetuta ibiliko zara egunotan. Horregatik, lan mailan aurrera egiteko aukera izango duzu; aprobetxatuko duzu?



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Urte biren ostean, inauteriak «normaltasun» apur batean ospatzeko unea iritsi da. Zertaz mozarrotuko zara? SARS-CoV-2az, akaso?



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Aurkako iritziak botatzen zabilta beti, eta, honezkero, lagunak aspertuta dituzu. Martxa honetan, zure kontrako boikota antolatuko dute.



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Erraz gaundi dezakezun krisialdi baten erdian zaude; horrek eztabaida antzuak eta tentsioak eragingo ditu, kontuz ibili.



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Zure bizitza aldatzeko gogo duzu, batez ere maitasun kontuetan. Halere, ez pentsa bikote aldaketak gauzak bere onera ekarriko dituenik.



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Lanean erne ibili utzikieriatatik-edo akatsen bat edo beste egin dezakezu eta. Erabakiak hartu behar izango dituzu.



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Eztarriko mina hasi zaizu gogoz. Bada, aprobetxa ezazu, orriotan tradizio handiko jarabe natural bat prestatzeko pausoak dituzu-eta!



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Izkina guztien atzean ezkutatzeko den COVID-19ari sigi-saga egin diozu orain arte. Horrela jarraitu. Lortuko duzunik inork ez daki!



Esalegeak

Esaera zaharrak, esakune zaharrak, erran zaharrak, erran zuhurak, zuhur-hitzak, atsotitzak (Oihenartek asmatutako hitza), errefrauak, errepinak, supitak... Egia esan, euskaraz ez daukagu berba gutxi, herritik sortutako jakinduria biltzen duten esapide sententziotsuei esateko! Baina bada bat, beharbada, ez zaizuen hain ezagun izango: esalegeak. Hitzaren erabilpen eremua ezagutze-kotan, hiztegiataraz joz gero, Mitxelenaren Orotariko Euskal Hiztegiak 'esalege' hitza Plentziako aldaerari dagokiola diosku. Azkueren Hiztegi Hirukoitzak Txorierrin kokatzen du berba, eta Muxika Berrondoren hiztegiak, berriz, bizkaieraz ez ezik gipuzkeraz ere erabiltzen zela/dela dio.

Uribe Kostara etorrita, Iñaki Gilisastiren liburu mardo bezain mamitsua aipatuko dugu: *Urduliz aldeko berba lapikokoa*. Izan ere, hitza bertan agertzeaz gain, gure eskualdeko hainbat esalege eder ere ageri dira bertan. Hona hemen haietariko batzuk:

1. *Aberatza: infernuko lebatza; pobre: seruko lore.*
2. *Adiskide sarrak eta kontuk garbik.*
3. *Asauko beye, erroluse.*
4. *Aste da akabate.*
5. *Beti bearren ta kaka morralen.*
6. *Ereñ eskero, batu gero.*
7. *Ibilli seiñ es, neu andies.*
8. *Ibillin porasus ikisten da.*
9. *Ittoson itto oson.*
10. *Koittedun oñen beti arantze.*
11. *Lusera, idi bere susera.*
12. *Ondo iñen pagu, ate atzen palu.*
13. *Pagate deskantzu, kobrate seru.*
14. *Umeri emoioztazu soka luse ta umek ingotzu edosiñ gause.*
15. *Yoskillen etzen frakasárrak eta súlok bárrik.*

Orain, eskarmentu luzez ondutako esalege hauek gure eguneroko euskararen txertatzea baino ez dugu falta. Antzinako euskaldunei egin geniezaiekeen omenaldirik ederrena litza-teke hori. Eta geure hizkerari mesede. ◀



Esalegeak gaurko grafian

- 1 Aberatza, infernuko legatza; pobra, zeruko lorea.
- 2 Adiskide zaharrak eta kontuak, garbiak.
- 3 Asagoko behia, erro-luzea. (Asago: urrun, urruti)
- 4 Hastea da akabatzea.
- 5 Beti beharrean eta kaka morralen. (Morral: zakuto)
- 6 Ereinez gero, batu gero.
- 7 Ibili zein ez, neu handiagaz. (Handiagaz: handiarekin)
- 8 Ibiliaren porazuz ikasten da. (Porazuz: poderioz)
- 9 Itsasoan, ito osoan. (Osoan: guztiz)
- 10 Koitaduren oinean beti arantza.
- 11 Luzera, idia ere susara. (Susara: arreske, berotuta)
- 12 Ondo eginen pagua, ate atzean palua. (Pagu: ordain)
- 13 Pagatzea, deskantsua: kobratzea, zerua.
- 14 Umeari emaiotzu soka luzea eta umeak egingo dizu edozein gauza.
- 15 Joskilearen etxean, praka zaharrak eta zuloak berriak. (Joskile: jostun)

Eremu zabalak arakatzen

Paisaiak ikusten ditugunean, beti politak iruditzen zaizkigu, postalen modukoak, baina, gero, argazkietan ez da hain erraza ikusitakoa irudikatzea. Oraingoan saiatuko gara pista batzuk ematen paisaia-argazkiak hobetzeko.

Planifikazioa

Paisaiaren argazki on bat lortu gura baduzu, lehenengo araua da plangintza ona izatea. Badirudi horrek ez duela zerikusirik gure azken helburuagaz (paisaia polita lortzea), baina, zalan-tzarik gabe, garrantzi handia du.

Ondo planifikatzen badugu, argazkiak egiteko kokalekuak aurkituko ditugu, hori egiteko eguneko unerik onena zein den ere jakingo dugu, edo, bertan gaudenean, eguzkiak nondik joko duen aurreikusi ere.

Plangintza ona izateak ere lagunduko digu jakiten ea janzkera berezirik behar dugun gure helmugara iristeko (adibidez, uretako botak), edo itsasertzeraz joaten bagara, ea marea nola egongo den joango garen unean.

Eta hizpide dugun plangintza hori gauzatu ahal izateko, tresna ugari ditugu, Interneti eta app-ei esker lana errazten digutenak. Erabilienetako batzuk dira: Google Maps, Photopills eta The Photographer Ephemeris.



Pazientzia

Pazientzia garrantzi handiko bertutea da, eta argazkigintzan ere bai. Nekez iritsiko zara lokalizaziora eta postaleko irudi bat lortu.

Konposizioa aztertu behar da, eszenatokia aztertu... eta ez hori bakarrik, batzuetan, ustekabeko elementuei aurre egitea ere egokituko zaizu; adibidez, elementu interesgarria estaltzen duten hodei batzuei. Horrelako zerbaiten aurrean, pazientzia hartu eta noiz pasako zain egotea besterik ez zaizu geratzen. Bitartean, beste argazki mota batzuk bila ditza-kezu, edo kamera une batez utzi eta ingurua miretsi. Garrantzitsuena da ez larritzea eta zauden lekuaz gozatzea.

Ikuspuntu eta kokaleku berriak

Paisaiaren argazki batez inor harritu gura badugu, ezin dugu mundu guztiak egiten duen begiratoki batetik egite- ra mugatu. Leku estrategikoak bilatzen saiatu behar dugu, nahiz eta leku horietara iristea denbora eta ahalegin handi- diagoa inbertitu behar, aurrean dugun ingurunearen ikus- pegi desberdina eta originala lortzeko.


Eta haiengana iristen zarenean, makurtu, angelu berriak bi- latu eta ingurua arakatu argazkia egin aurretik... Horrela ba- karrik lortuko dugu gure begirada eta konposizioak bereiztea.

Angeluhandiak

Paisaia on batean, normalean, gustatzen zaiguna eta inpak- tua eragiten diguna da haren zabaltasuna, eta irudi batean hori islatzeko modurik onena da ikusmen angelu handi bat hartzea ahalbidetuko digun objektibo bat erabiltzea. Bai, lente angeluhandiez ari naiz.

Gainera, angeluhandi batez lan egiteak eta diafragma txi- ki bat irekitzeak emaitza hobea bermatuko digu argazkigin- tzan, garbitasunari eta eremu sakontasunari dagokienez, eta hori garrantzitsua izaten da.

Baina gauza guztiakaz gertatzen den bezala, hori ez duzu hi- tzez hitz hartu behar arau hautsezina balitz bezala. Ez pen- tsa paisaiaren argazkiak egiteko angeluhandi bat behar de- nik; inondik inora. Horren angeluarrak ez diren lenteakaz ere emaitza onak lortu ahal izango dituzu, eta, are gehiago, ikuspegi-angelu handiagoa bete gura baduzu, beti aukera- tu ahal izango duzu panoramikak egitea, paisaia-argazkian oso formatu errepikakorra eta jarraian aipatuko duguna. Are gehiago, sinesten ez baduzu ere, teleobjektibo bat ere erabilgarria izan daiteke halako hartualdietan, batez ere arreta puntu jakin batean jarri gura dugun eszenetan, eta, horretarako, ikuseremua mugatu behar dugu.



Tripodea

Paisaiaren argazki on batek garbia izan behar du eta, horretarako, ezinbestekoa den osagarri bat dago: tripodea. Kameragaz tripodearen gainean lan egiten badugu, argazkiaren unean kamera mugimendua edukitzeko aukera oro kenduko dugu eta, horrek, zalantzarik gabe, mesede egingo dio gure emaitzari.

Eta are perfektionistagoak izateko, urruneko disparadore bat ere erabil dezakezu (edo zure kameraren tenporizadorea), eta tiro-botoia sakatzean sor dezakezun dardara saihestu. Osagarrien konbinazio hori, zalantzarik gabe, ezinbestekoa da paisaiaren argazkigintzan eta, batez ere, denbora luzeko esposizioak egiten ditugunean, hemen azpikoa bezala.



Filtroak

Filtroen erabilerak gure emaitzak nabarmen aldatuko ditu, hobera. Hauek dira erabilienak:

Filtro polarizatzaileak. Filtro horien bidez, zeru urdinagoak lortuko ditugu, distirak ezabatuko ditugu, erreflexuak murriztuko ditugu eta gure argazkien koloreen saturazioa areagotuko dugu.

Dentsitate neutroko filtroak. Dentsitate neutroko filtroakaz kamerari sartzen zaion argi kopurua murriztuko dugu, eta, horri esker, obturazio-abiadura motelagoakaz lan egin ahal izango dugu esposizio luzeko argazkiak egiteko; horietan, uraren edota hodeien efektu sortzaileak lortuko dugu.

Dentsitate neutroko filtro degradatuak. Filtro horiek aurrekoen antzekoak dira, baina graduatuta daude; hau da, goiko aldeak argi kopurua murrizten du eta behekoak ez. Horri esker, argi-kontraste handiak dituen paisaia baten esposizioa orekatu dezakegu, zerua oso distiratsua eta zorua iluna dituen.



Zaindu konposizioa eta natura



Argazki on baten eta argazki normal baten arteko aldea markatzen duen alderdiren bat badago, konposizio ona da. Nahiz eta gero argazki bat editatuko dugun, klikatzearen unetik ezer ekartzen ez badigu... nekez egingo du gero. Beraz, zoro bat bezala klik egiten hasi aurretik, jaitsi kamera eta begiratu aurrean duzun inguruari. Modu horretan bakarrik erreparatuko diezu paisaia hori berezi bihurtzen duten xehetasun txikiei, eta eszenari gehien mesede egiten dion konposizioa aukeratu ahal izango duzu.

Proporzioak

Batzuetan, leku baten handitasuna erakusteko modurik onena da ezagutzen ditugun dimentsioak dituzten elementuak testuinguruan jartzea. Adibidez, pertsona bat paisaia baten aurrean jartzen badugu, hura paisaiaren tamainari dagokionez zein handia den jakin dezakegu.

Bestalde, gure paisaia-argazkietan giza elementu bat jartzeak ere interesa emango dio gure argazkiei, eta irudiari historia bat ematen eta, horrela, hura hobetzen lagun diezaguke.



Zure aztarnak ezabatu

Natura ere zaindu behar dugu, beraz, inoiz ez utzi aztarnarik, argazkiak izan daitezela zure lekuko bakarra!

Martxoan:

Gaueko argazkiak

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA



Margotu

Eman kolorea
herensugeari.

Sudokua

Nola esaten diozu ondoko munstro
handi honi, HERENSUGE ala DRAGOI?
Egia esanda, biak dira onak, baina
bigarrenak, sei hizki dituenez, sudoku
honetarako aitzakia eman digu. Beraz,
bete itzazu hutsuneak DRAGOI hitza
osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O
eta I). Gogoratu hizki bakoitzak behin
agertu behar duela lerro, zutabe eta
area bakoitzeko.

Zortziko txikia

Aurki itzazu hiru
neska-mutilen eta
haien islaren artean
dauden aldeak.
Zortzi dira
guztira.



			O		
	O		R	G	
			G		O
	A			D	
D		O			G
	R		D		



Bakoitzari berea

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.



Zertaz mozorrotuko zara inauterietan?



IMANOL MONTAÑA HURTADO
BERANGO

Mozorroa eskolan edo kultur etxean egingo dugu, aurten antzinako industriako langileak da gaia, beraz, horretaz mozorrotuko gara seguruenik. Gero, lagunakaz geratuko naiz Berangoko frontoian, eta litxarrerriak jan eta harrapaketan jolas-tuko gara.



ALAZNE MORA
BERANGO

Aurten ez dakit mozorrotuko naitzen, oraindik ez dakigu gaia. Iaz gozokiz mozorrotu nintzen, hodeiz jantzi nintzen, nik egindako mozorro arrosa eta zuri batekin.



ALAIN PEREZ DE FOTECHA BILBAO
BERANGO

Lehen mozorrotzen ginen, baina gero, egiteari utzi genion. Hala ere, orain, berriro ere mozorrotzen gara umeengatik, beraiek ondo pasatzeko eguna da, eta beraiek oso ondo pasatzen dute. Urte honetako mozorroa super-heroi batena izango da umearentzako, baina gurasook oraindik ez dugu erabaki.



ESTHER CANELO
BERANGO

Umeak gai batez mozorrotzen dira, eta familiakook ere berdina egiten dugu, danok elkarregaz mozorrotuta joateko. Gainera, kultur etxean beraiek egiten dituzte mozorroak, eta amek ere berdina egiten dugu. Lehen gehiago gustatzen zitzaidan mozorrotzea, baina, batez ere, umeengatik egiten dut.



ALVARO BARRENA ACHA
BERANGO

Ni ez naiz mozorrotuko, baina umea bai, ikastolan inauteriak ospatuko dituzte eta. Aurtengo gaia pailazoak dela uste dut, baina niri ez zait disfrazatzea gustatzen, beraz, ez naiz ezertaz jantziko. Umeek ederto pasatzen dute horrelako gauzeekin, gero, nagusiagoak direnean, agian aldatuko dira.



JUNE MARQUEZ
BERANGO

Aurten, klasean Harry Potterrez mozorrotuko gara, Hogwartseko magiako ikaslez jantziko gara. Iaz gozokiz ere mozorrotu nintzen; ni erregaliz gorria izan nintzen.



OLATZ KAREAGA
BERANGO

Marrazki bizidunetako pertsonaiak, fikziozkoak eta horrelako gaiez mozorrotzen naiz. Niri inauteriak ospatzea gustatzen zait, baina batez ere, umeek oso ondo pasatzen dutelako, bestela ez dit horrenbesteko ilusiorik egiten. Txikitan beste kontu bat zen, orduan nik ere ederto pasatzen nuen.



MAIDER MARTINEZ
SOPELA

Ez gara asko mozorrotzekoak, normalean, lagunakaz geratzen gara eta norbaiten lonjara goaz jolastera, elkarregaz egotera eta afaltzera. Baina, oro har, ez diogu garrantzia gehiegirik ematen; toki oso ezberdinetakoak garenez, eta askotan ahaztu egiten zaigunez, nahiago dugu ez mozorrotu.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Kuikui antzerki-ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunerako lau sarrera bikoitz zozkatuko ditugu. Saioak martxoaren 27an izango da, Muxikebarrin, 16:30ean eta 19:00etan.

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 23a (eguztena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zozketa

Enperadorearen kondaira

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, otsailaren 28an izango den haurrentzako ikuskizun honetarako hiru sarrera bikoitz zozkatuko ditugu. Saioa 12:00etan hasiko da, Muxikebarrin.

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 23a (eguztena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zozketa

Jatorrak gara liburua

Ibaizabal argitaletxeari esker, hiru urtetik gorako umeentzako liburu eder hau zozkatuko dugu HIRUKAlagunen artean. Zurea izatea gura duzu? Bada, eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, otsailaren 23a (eguztena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.





OTSAILAK 26 FEBRERO **AREETA - ROMO**

^{æk}
22.korrika



Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

